

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-07-18  
EGUBAKOITZA  
605. ZENBAKIA  
14. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM

## "Espainiako Gobernuak ateak itxita ditu"

Joseba Egibar

GBBko presidentea | 7



## Oñatiko jatetxeetan iturriko ura gura

Pitxarrak banatuko  
dituzte, hondakinak  
murrizteko | 14

Larrialdietan Berehalako Erantzuna  
Emateko Taldea, Debagoiengan | 2



Domekan Sor Ambrosia izango  
dute gogoan Marinen | 16



Musika elektronikoak Arrasate  
'hartuko' du hiru egunez | 25



## ARRASATETIK ZERURA

Oregonera (AEB) abiatu da Malen Ruiz de Azua atleta arrasatearra, junior mailako munduko txapelketa jokatzera; izugarrizko saltoa. | 20

Malen Ruiz de Azua  
pertika-jauzilaria  
entrenamendu saioan  
astehenean  
Arrasaten, Mojategin.

JAGOBA DOMINGO

# Zaldibar antzokia, eskoriatzarren esku

Kultura Mahaia osatu gura dute, egiten diharduten antzoki berria herritarrekin eta taldeekin kudeatzeko | 9

## SEAT LEON ST BERRIA



### Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



SINADURAK



ANDONI URZELAI | 8



ANDER ELORTONDO | 18



IDOIA ETXEBERRIA | 32

DEBAGOIENA 5 | IRITZIA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20 | KULTURA 23 | ZURE IRAGARKIAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30

# Gurutze Gorria, baita mendiko larrialdietan ere

- Debagoienean ere bada ERIE izeneko talde berezitua, boluntarioz osatua
- Mendian jarduten dute, baina baita ibaietan eta bestelako bilaketetan ere

JULEN IRIONDO | OÑATI

2008an hasi zen martxan Debagoieneko Gurutze Gorriaren ERIE, Larrialdietan Berehalako Erantzuna Emateko Taldea. Batez ere, mendian, larrialdietan eta prebentzioan jarduten dute, baina ibaietan ere egin behar izaten dituzte bilaketak, eta baita landa eta hiri-inguruneetan ere.

"Ez da erreskate talde bat; hau da, ez dugu erreskaterik egiten arriskua handia den kasuetan", uzten du argi hasieratik taldeko arduradun Javier Igartuak, azalpenarekin jarraituz: "Horretarako talde profesionalak aktibatzen dira; eta ez da jende gaiturik ez dugula, baizik eta boluntario izateagatik ez gaituztela arrisku handiko egoeretara bideratzen".

Hamasei gizon-emakumek osatzen dute Debagoieneko ERIE, "prestakuntza espezializatua" dutenak guztiak: "Prestatzen gara formazioarekin eta praktikekin: orientazioa, GPS teknologien erabilera eta mendian gidatzea"; esku-hartze errealetarako baliagarri zaizkien ezagutzetan, Igartuak azaltzen duenez. Esku-hartze ohikoenak izaten omen dira desagertutako pertsonen bila: "Muturreko eguraldi txarragatik ere aktibatzen gaituzte, haize-teengatik, euriteengatik...".

## Lurreko bilaketa taldea

Euskadiko Gurutze Gorriko ERIE-ko parte da Debagoieneko taldea -hamabi daude guztira, sei Gipuzkoan-. Lurreko bilaketa eta sal-

bamendu taldea da bailarakoa, ze halakoez gain beste batzuk ere baditu Gurutze Gorriak: esku-hartze psikosozialerako taldea; behin-behineko aterpe-babeserako taldea; osasun arretarako eta biktimen sailkapenerako taldea; eta komunikaziorako eta koordinaziorako taldea.

Debagoieneko taldeak Oñatin du egoitza -ETEO eraikinean-; bertan egiten dituzte bilerak eta prestaketak. Deitu, baina, edozein lekutarako dei ditzakete: "Pentsatzen badute ekarpenen bat egin dezakegula eta gure esku-hartzea eraginkorra izango dela". Aldea dago, ordea, esku-hartze tokiaren arabera: "Aktibazioa gure inguruan, Debagoienean, bada, geu aktibatuko gaituzte aurrea; kanpotik datozen taldeen koordinazioa egin beharko dugu, eta SOS Deietako arduradunarekin antolatzea ere gure egitekoa izango da. Aktibazioa beste eremu batean bada, eremu hartako taldeei laguntzera edo haiei erreleboa ematera joan beharko dugu". Dena den, Debagoieneko taldeko arduradun Javier Igartuaren



Lur orotariko ambulanzia. | J.I.

arabera, Erkidegoa da euren jardute-eremu ohikoena, nahiz eta inguruko erkidegoetara ere joan behar izaten duten tarteka.

SOS Deien ardura izaten da taldeen aktibazioa: "Pertsona baten desagertuaren abisua jasotzen dutenean, bilaketa antolatzeari ekiten diote. Beharrezko informazioa jaso eta behar diren taldeak aktibatzen dituzte, bilaketaren ezaugarrien arabera. Gurutze Gorriak jasotzen duenean ERIE aktibatze eskaria, bilaketa tokitik gertuen dagoen taldea aktibatzen da, eta bilaketaren bilakaeraren edo ezaugarrien arabera, gainerako taldeak ere aktibatzen dituzte, laguntza modura, errelebo modura...".

Boluntarioak izaki, dena den, aktibazioa izaten da taldekideen disponibilitatearen arabera: "Taldea batek jasotzen duenean herrialdeko larrialdietako teknikariaren aktibazio eskaria, ahalik eta bizkorren erantzun behar da; baldin eta taldeak baditu kideak irteteko modura, adierazten da zenbat denbora beharko duten martxan jartzeko. Behin aktibatuta eta jarduteko eremura bidean, informazioa eta egin beharreko lanaren gainekoak jasotzen dira. Esku-hartzea koordinatzea guri dagokigun kasuetan, koordinaziorako arduradunak izendatzen ditugu eta haiek dira SOS Deien operatiboarekin harremanetan egongo direnak".

Larrialdietan Berehalako Erantzuna Emateko Taldearen jardunerako baliabide nagusiak



ERIEko kideetako batzuk. | J.I.

JAVIER IGARTUA  
ERIE-KO ARDURADUNA

## "Perretxiko garaia delikatua izaten da"

Noiz eta zein  
duzue hitzar-  
tutako hurren-  
go zerbitzua?

Prebentzio zerbitzuak urtero errepikatzen dira ia: mendiko ekintzak, martxak, mendiko bizikleta probak... Irailera arte ez dago ezer iragarria; irailean eta urrian azken mendi bizikleta probak izango ditugu, eta urtea bukatzeko formazioa eta praktikak egingo ditugu. Hori bai, SOS Deiek aktibatzen bagaituzte, hor egongo gara.

**Uda ez da, hortaz, bereziki zaila izaten?**

Ez; baina inoiz ez dakizu noiz desagertuko den pertsonaren bat. Dena dela, perretxiko garaia izaten da delikatua zentzu horretan.



J.I.



Mendiko lasterkaria artatzen. | GURUTZE GORRIA

## 2013. urteko jarduna

- Hamalau aldiz aktibatzen ERIE (Zadorra ibaian, Lareoko urtegian, Tolosan, Eibarren, Azpeitian, Lapuebla de Labarcan...).
- Aktibazioa edo aurre-aktibazioa eguraldi txarragatik (elurra), sei aldiz.
- Mendian egindako zerbitzu bereziak, hamabost.
- Formazio jardunaldiak, praktikak eta taldearen mantenua: 23 ekintza, guztira.

ARRASATEKO BASERRIKO  
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2014  
uztailak 19

irailak 20  
urriak 18  
azaroak 15

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN  
Enplegu eta Garapen  
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, hurbiltasuna eta kalitate eskaintzen dituztela.





Ibilgailua mendian, eta boluntarioak kontrapisua egiten. | GURUTZE GORRIA

tenean. Halakoak delikatuak izaten dira: "Hor atzean familia bat egon ohi da bere etxekoa non dagoen jakin nahian; lehenengo orduak kezka eta urduritasun handikoak izaten dira, eta behar izaten dena izaten da patxada eta bilaketa ondo antolatze faktoreen analisi objektiboa". Gurutze Gorriko boluntarioak saiatzen dira "barruan daukaten dena" ematen, familien "sufirimendu hori arintzeko". Horretarako, bilaketa lanak ez ezik, desagertutakoaren gertuko animo eusteko ahalegina ere egin behar izaten dute.

Eta bilaketa, askotariko baldintzetan, batzuetan beste batzuetan baino luzeago, eta beti ez deseaturako emaitzarekin; eta noski: "Bilaketa antolatzen ari denak bidaltzen digunean mezua dioena 'pertsona aurkitua', hori da izan daitekeen unerik bereziena, harrapatzen zaituen lekuan harrapatzen zaituela, lekuan bila ari zarela edo erreleboa emateko etxean atseden hartzen ari zarela", dio ERIEko arduradunak.

Prebentzio zerbitzuei dagoenikenez, berriz, aurreko asteburuan



Tableta, lagungarri, ibilgailuan. | J. I.

egin zuten, adibidez, azkena, Ehun Miliak, mendiko lasterketa luzea: "Lanerako oso proba zaila da, lasterketako tarte bakoitzean behar direlako postuak, eta edo-zertarako gertu egon behar dutelako taldeek". Izan ere, 166 kilometro dira mendian barrena, "iristea zaila den puntu batzuekin". Javier Igartuak dioenez, bi lan mota egin behar izaten dituzte halakoetan, "lasterkariak zauri txikiengatik artatu eta erabat ahitutakoan trasladoo": "Aurten ere izan dira euren muga fisikora iritsi direnak; zorionez, azken edizioetan ez dugu aktibatu behar izan bilaketarik, inor ez da eta bidean galdu".

Batzuetan lan hobeak, bestetan gogorragoak, beraz, baina Igartuak dei egiten die beste batzuei laguntzeko interesa dutenei, oro har, Gurutze Gorrira -tarteetan, ERIEra- hurbil daitezten -edo 943 76 55 76ra deitu-, "ekin-tza ugari" omen dituzte-eta, "eta ideia eta proiektu asko" martxan jarriko lituzketenak -nahiz eta, orain arte, Debagoieneko postua ambulanzia zerbitzuekin jardun den, batez ere-. ERIEko arduradunak argi du: "Pertsonalki, uste dut merezi duela; arazo bat konpontzeko pasatzen dituzun ordu guztientzat nahikoa ordain da esker on hitz bakar bat".

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



izaten dira jantziak, segurtasun gailuak, orientaziorakoak, GPSak, ibilgailuak eta osasun arretarako materiala eta biktimak ebakua-tzekoa, batez ere; lanerako oinarritzko materiala bermatzen badite ere, Debagoieneko ERIEkoek "zerbitzu hobe" ematea nahi dute: "Hobeto egokitutako ibilgailuak nahi ditugu, trasladooak erosoagoak izan daitezten; osasun arretarako material gehiago ere nahi genuke, eta komunikaziorako gailu hobeak ere bai, lanean ari garela estaldura arazoak izan ez ditzagun". Halako aparteko gastuetarako, Debagoieneko postuak jartzen ei du bere baliabideetatik, "Urrearen Loteriatik" ateratakotik, besteak beste: "Une honetan, gehien behar duguna da ibilgailu berri bat. Daukagunetako bat oso egoera txarrean dago; bi urte pasa dira horren berri eman genuenetik, eta aurrekontuek eskari hori jasotzeko zain gaude", dio Igartuak.

#### Larrialdiak eta prebentzioa

Mendiko ekintzetan prebentzio zerbitzua eman behar izaten dute, batetik, Debagoieneko ERIE taldekoek; bestelakoa da egitekoa, bilaketa bat egiteko deitzen dituz-

## Debagoieneko ERIEko boluntarioak



AINHOA LAZPIUR

Herria: Bergara.  
Lanbidea: Erizaina.

### "Erizaina naiz eta beti gustatu izan zait laguntzea"

"Bost urte daramatzat Gurutze Gorrian eta lau ERIE taldean. Esan zidaten ea joango nintzen mendiko lan batera; joan nintzen, gustatu egin zitzaidan eta geratzea pentsatu nuen. Erizaina naiz eta beti gustatu izan zait laguntzea eta osasun arloko lana. Oso gustura nabil, eta jarraitzeko asmoz".



GAIZKA TELLERIA

Herria: Oñati.  
Lanbidea: Udaltzaina.

### "Mila lekutara izan daiteke: egunez, gauzez, elurrarekin..."

"Hamazortzi urte dira Gurutze Gorrian hasi nintzela; talde honetan, berriz, sorreratik nago. Anbulantziarekin badakizu zertara zoazen; talde honetan ez dakizu noiz deituko dizuten, eta mila lekutara izan daiteke: egunez, gauzez, elurrarekin, euriaz... Askotarikoak egiten ditugu".



GOTZON GARITAONANDIA

Herria: Arrasate.  
Lanbidea: Informatikaria.

### "Une txarretan, pentsatzen duzu jarraitzea merezi duen"

"Hamazortzi urte daramatzat nik ere Gurutze Gorrian, eta 2010a ezkeror nabil ERIEn. Mendia gustatzen zait, lur orotariko ibilgailuak ere bai, eta horregatik hasi nintzen. Momentu txarretan pentsatzen duzu ea jarraitzea merezi duen, baina alde onak gehiago dira".



IBAN IARTZA

Herria: Arrasate.  
Lanbidea: Ingeniarria.

### "Sarri, oso aukera gutxi egoten dira abiatzerako"

"Soldadutza ez egitearren hasi nintzen Gurutze Gorrian duela 26 urte, eta 2010a ezkeror nabil talde honetan. Mendia, lur orotarikoa, GPSa... gustatzen zaizkit, eta, soroslea izanda, puntu guztiak neuzkan: gauza gehiago egiteko eta ikasteko. Sarri, oso aukera gutxi egoten dira abiatzerako".



ADRIAN MARTINEZ

Herria: Logroño.  
Lanbidea: Ikaslea.

### "Mendia beti gustatu izan zait, baita laguntzea ere"

"Iaz hasi nintzen Gurutze Gorrian, eta hasi berria naiz talde honetan. Animatu ninduten hasteko, eta proba modura ari naiz; gustura nabil. Mendia beti gustatu izan zait, eta beste batzuei laguntzeko bokazioa ere betikoa dut. Lanik ez dago; beraz, ahal den heinean laguntzen saiatzen naiz".



## NISSAN QASHQAI BERRIA BEHIN BETIKO HIRI ESPERIENTZIA

18.775 €\* -tik

Behin betiko hiri crossover-a ezagutu. Ausarta eta teknologia onenarekin hornitua. Gidariarentzat kontrol osoa emateko egina. Nissan QASHQAI berria da.



**Gaur** -ra  
etorri probatzera

OTAOLA HIRIBIDEA, 22. TEL.: 943 82 09 74  
EIBAR



Penintsula eta Balear uharteetarako salneurria eta barnean hartzen ditu: FAP (PFF), garraioa, Nissan Assistance, promozioko deskontua, PIVE 6 plana, BEZA eta IEDMT, agian Espainiako merkaturako, zure autonomia erriidegorako aplikagarria izan ez daitekeena. Partikularrentzat eta autonomoentzat baliozkoa den eskaintza, Nissan Qashqai Di6-T 115 ZP (85kW) M/T 4x2 Acenta 5 atekoa eskuratzen duenarentzat, eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat trukean ematen duenarentzat eta RCJ Banque SA, Espainiako bulegoan finantzatua dagoena. 24 hilabeteko gutxieneko iraunkortasunarekin, gutxienez 6.000 € finantzatuta. Beste kanpaina batzuekin ez bateragarria eta 2014/07/31 arte baliagarria dena edo PIVE 6 planaren finantzaketa, lehenago gertatzen dena. Informazio gehiagorako zure hurbileneko kontzesionarioa joan. Ikusten den modeloek ez dauka zertan eskaintakoa izan.

**Jar ezazu zure autoa  
puntu-puntuan  
eta ondo  
pasa oporrak**

**bateria  
argiztapena  
aire girotua  
iragazkiak  
balaztak  
gurpilak  
olio nibelak...**



Pneumatikoak • Olio aldaketak • Garbiketak • Gasoil banaketa

Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara



• Olio aldaketak  
• Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 763627  
E-posta.: [bergarapneumatikoak@gmail.com](mailto:bergarapneumatikoak@gmail.com)



AUTOAREN KRISTALDEGIA  
•  
INPAKTUEN KONPONKETA  
•  
LAMINA SOLAR  
BAIMENDUAREN INSTALAZIOA

**DESA CRISTAL**

Santalaitz, 6-5. Pab. / ITVaren kalean  
Tel.: 943 76 36 09 - BERGARA  
[www.desacristal.com](http://www.desacristal.com)



## **GARAJE BERRIA MULTIMARKA**

Mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pneumatikoak  
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara  
[fordberria@telefonica.net](mailto:fordberria@telefonica.net)

**Eskaintza handiak!**



**CITROËN  
ION AUTOAK**

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara

**Murillo Garajea**



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara

**TXOMIN GARAJEA**

**Eskaintza bereziak pneumatikoetan!**

Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

Alvaro Arrizabalaga | Lezetxikiko indusketen zuzendaria

# Frantzian edo Katalunian txinpartak aterako liokete halako baliabide bati"

Arrizabalagak uste du lotura dagoela Atapuercaren eta Lezetxikiren artean: "Azkenean, agertuko da"

UBANE MADERA | ARRASATE

Datorren urtean 20 urte beteko dira Arrasateko Lezetxiki kobazuloko aztarnategian indusketak egiten dihardutela. Aurtengo jarduna burututa, 19.a, gaur, egubakoitza, guztia batu, txukundu eta atea itxiko dituzte datorren urtera arte. Alvaro Arrizabalaga (Oñati, 1965) arkeologoa da indusketa horien zuzendaria. Aurtengo jarduna "oparoa" izan dela azpimarratu du, besteak beste.

**Gaur duzue azken eguna. Balorazio orokorra eskatuko dizut.**

Oso ona. Aurreikuspena zen zenbat eta beherago joan, orduan eta material gutxiago aurkituko genuela. Teorian, maila antzutan egon beharko ginateke lanean; berriz, praktiken arabera, ikusten da zenbat eta beherago joanda orduan eta maila gehiago aurkitzen ditugula, oparagoak, eta gainera, hedatzen zaigula aztarnategiaren zabalera. Hasi ginen 6 m<sup>2</sup>-an bakarrik eginez, eta orain 18 m<sup>2</sup> bat ditugu.

**Lezetxikiren garrantzia gizakiarekin lotutako aztarnak agertu izanaren ondorioa da. Aurten egin da zentzu horretako aurkikuntzarik?**

Iaz sartu ginen maila batean non aztarna guztiak lotuta zeuden gizakiaren ekimenarekin, bai harrizko tresneria, eta baita animalien hezurdurak ere, zerikusi zuzena zutenak gizakiaren ehizarekin eta jan aztarnekin. Aurten izan dugu oparotasun handiagoa harrizko tresneriari dagokionez. Baina, berriz, faunan izan dugu espektro bat non ikusten diren animalia okela-jaleek ere izan dutela ekarpena. Ez dugu horren argi ikusten lotuta dagoen gizakiaren ehizarekin eta aprobetxamendurekin.

**Piezok nora bideratuko dituzue?**

Gipuzkoan aldarrikapen historikoa izan da erreferentziako toki publiko bat izatea ondare arkeologikoa bertan batzeko; batez ere, kontuan hartuta Gipuzkoan ez dagoela arkeologia-museo publikorik. Badirudi duela hiru urte Irunen inauguratu zen gordailu zentroak datorren urtetik aurrera jasoko dituela bilduma arkeologikoak; Lezetxikikoa ere bai.

**Zertan da Lezetxikiren aberastasuna jendaurrean jartzeko asmoa?**

Orain arte halakoak proposatu dituen ni izan naiz. Ez dago arazorik egiteko Arrasaten ambizio handiko proiektu bat. Zona honetan badago oparotasun arkeologiko bikaina, eta kontuan hartuta museo guztiak eta ikerketa zentro guztiak ez direla zertan hiriburuan bakarrik kokatu, uste dut badagoela aukera. Eta ez Arrasaterako edo Debagoienara-



Alvaro Arrizabalaga, aurkitutako hartz baten baraiarekin. | AMAIA TXINTXURRETA

## "Europako museo askotako mapetan azaltzen den leku bat da Lezetxiki"

ko bakarrik. Egin daiteke proiektu bat Gipuzkoarako, Arrasaten. Baina horretarako, egoera ekonomikoaz gainera, beste pentsamolde batzuk aldatu beharko genituzke.

**Borondate politikoa falta da?**

Borondate politikoa, eta ez politikoa bakarrik. Igual, hasi beharko ginateke ekonomia ikuspegi dinamikoago batekin ikusten halako baliabide kultural eta turistikoaren bideragarritasuna,

iturri ekonomiko bezala: epe ertainera eta etorkizunari begira badagoela landu bako baliabide bat. Hausnarketa berbera egiten dut urtez urte: halako baliabide bat egongo balitz Frantzian edo Katalunian, ez dut inolako zalantzarik aspalditik egongo litzatekeela proiektu bat, eta txinparta ekonomikoak aterako lioketela. Gipuzkoa mailako aztarnategi erraldoia da, oso ongi kaleratuta, inguru zientifikoetan egundoko balioa ematen zaiona... Baina gure egin beharrekoa ez da akademikoa. Ez da gure lehentasuna halako proiektuetan sartzea. Prest gaude laguntzeko, ideiak emateko eta egin beharreko lana egiteko. Baina inizatibak beste nonbaitetik etorri beharko luke.

**Esan daiteke Atapuercaren jarraipena dela Lezetxiki?**

Beti pentsatu dut lotura bada-goela eta azkenean agertuko dela. Kontua da hor dugula argi erraldoia Atapuercak ematen duena, eta, batzuetan, gainontzekoak itsu gelditzen gara. Atapuercak ez balitz egongo, Lezetxikiren distira askoz handiagoa izango zen. Esan beharko genuke gizakia ez dela jaio Atapuercan. Giza taldeak iritsi dira hara nonbaitetik pasatzen. Eta nonbait hori, gure ustez, argi eta garbi, Deba bailara da. Funtzionatzen du bide bezala animalien eta giza populazioarendako, sakontzeko penintsula barrenean. Orain arte beti pentsatu da nahiko populamendu uholde lineala zegoela Frantzia erdialdetik Kantauri aldera. Guk esaten dugu egia dela ardatz hori existitzen dela, baina badagoela beste ardatz bat, oraindik ere garrantzitsua dena, Deba bailara zeharkatuz, komunikatzen duena kontinente europarra, Ebro bailara eta baita ere ipar goi lautada, *autobide* antzeko bat. Gogoratu beharko genuke, gainera, Atapuercatik 140 kilometrorra bakarrik dagoela Lezetxiki.

**Besterik gura baduzu gaineratu...**

Espero dezagun izango dugula nahiko errezeptibitate gure kudeatzaileen aldetik, halako lanak finantzatzeko. Ez gaude geldi, ari da argitaratzen Lezetxiki oso toki onetan, ari da izen handiagoa hartzen giro akademikoetan. Bada toki ezaguna. Europako museoetan askotan mapetan agertzen den leku bat da Lezetxiki. Hori kontuan hartu eta pentsatu beharko genuke merezi duela inbertsio apur bat egitea. Egiten dena da guztion historia, eta guztion ondarea osatu eta aberastu.

## Bisitari ugari izan ditu Lezetxikik

Atzo, eguna, Arrasateko Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak antolatuta, agintarien eta komunikabideen bisita izan zuten Lezetxikiko aztarnategian. Bertan hiru astez lanean [musu-truk] jardun duten nazioarteko hogeitaz arkeologia ikasleak eta haien zuzendariak bisitariekin partekatuta zuten indusketek aurtengo emandakoa. "Aurkitu diren materialen artean aipatzekoak dira su eta janari aztarnak, leizeetako hartza bezalako animalien hezurak, edo industria litikoa".



Atzo, eguna, agintari eta kazetariak, Lezetxikin. | AMAIA TXINTXURRETA



Donostian protestan. | ORDAINDU

## Kanpaldia iragarri dute Ordainduko ordezkariak

U.M. | DEBAGOIENA

Donostiako Justizia Jauregira eraman dituzte asteon euren aldarrikapenak Ordaindu plataformako ordezkariak elkarretaratzea eginda atzo, eguna. Komunikatua irakurri dute, eta Fagor Etxetresnen konkursoaren ardura duen Pedro Malagon epaileari helarazi diote idatzia. Besteak beste, honako hau salatu dute komunikatuan: "Atzo Mondragon Taldeak gutxietsiak eta alboratuak izan ginenok justizia eskatzen diegu administrazio konkurtsalari eta merkataritza alorreko epaileari. Ezin da onartu lanean emandako bizitza osoko aurrezkiak desagertzea, kooperatiba egokiaren izenean jarri ez direlako eta tartean amarru juridikoak egon direlako. Atzo Mondragon Taldeak gutxietsiak eta alboratuak izan ginenok erantzukizunak eskatzen ditugu. Ordaindu 700 hartzekodun baino gehiago gara, eta 40 milioi euro zor zaizkigu guztira. Agerian dagoenez, borrokatzea baino ez dugu".

**Irailaren 24a aurretik**

Horren harira, egunotan berretsi egin dute asteroko mobilizazioekin segitzeko asmoa dutela, eta baita gehiago egiteko ere. Atzo Donostian egindakoaz aparte, aurreratu dute irailean Jose Mari Arizmendiari pasealekuan kanpaldia egingo dutela. Hori guztia irailaren 24an Ordaindu egingo duen batzar orokorraren aurretik izango da. Bitartean, beste eragile batzuekin ere elkartzeko asmoa dutela jakinarazi dute.

Horren berri eman dute lau egunez Arrasateko Kulturaren egindako bileren ondoren. Ordaindu plataformak esku artean duen informazioa emateko eta bazkideen iritzia jakiteko bilerak egin dituzte, hain justu. Plataformako kideek adierazi duten moduan, Ordaindu aldarrikapen mugimendu bezala sortu zen arren, mugimendu sozial bilakatu da.

## Antzinako argazki erakusketarako materiala jasotzen dihardute

U.M. | DEBAGOIENA

*Ura eta erreka Deba ibarrean* izeneko astearen baitan egingo diren ekitaldien artean, antzinako argazki erakusketara bana antolatu gura ditu Debagoieneko Mankomunitateak bost udalerritan: Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Eta horretarako, argazkiak biltzeari ekin dio; hain justu ere, "errekarekin zerikusirik daukaten antzinako argazkiak" behar ditu Mankomunitateak. Hala, herritarrek animatu ditu halakoak eraman ditzaten. *Ura eta erreka Deba ibarrean* astea urrian izango bada ere, uztailearen 30era arte batuko ditu argazkiak.

**Kultura etxeak, udaletxea...**

Parte hartzeko, honako leku hauetara eraman behar da antzinako materiala: Arrasaten, Biztanleen Arreta Zerbitzura; Bergaran, kultura etxera; Oñatin, udaletxera; Aretxabaletan, Arkupe kultura etxera; eta Eskoriatzan, kultura etxera, hain zuzen ere. Uztailearen 30era arteko epea jarri dute argazkiak batzeko.

Debagoieneko Mankomunitateak iaz urrian ere egin zuen urarekin eta eskualdeko errekin lotutako astea, eta haren barruan argazkiek ere izan zuten lekua; kasu hartan, lehiaketa eran (beheko argazkiak erakusten duen moduan).



Lur azpian urak elkartzen direneko argazkiak irabazi zuen iaz. | XABIER ATXA

## Michelin izarrekin tonbola, besteak beste, Iker Galan umearen alde

U.M. | DONOSTIA

*Solidarioak gara-denok Ikerrekin* izenarekin, gaur, egubakoitza, Donostian egingo dute Iker Galan ume bergararraren aldeko bigarren jaialdi solidarioa. Gipuzkoa plazan 10:00etan hasi eta 20:00ak arteko egitaraua prestatu dute, Galani laguntzeko dirua batzeko asmoarekin, besteak beste. Hain justu, batzen den dirua AEMPIra bideratuko dute (patologia mitokondrialak dituzten gaixoen elkarteak).

**Luxuzko afari-bazkariak**

Ekitaldien artean, 1.000 oparirik gora izango dituen tonbola

jarriko dute, Michelin izarra duten Martin Berasategi, Ake-larre eta Arzak jatetxeen laguntzarekin. Hain justu, aipatutako jatetxeetan afariak eta bazkariak zozkatuko dituzte.

Tonbolaz gainera, "zumba saio jendetsua" izango da familiei zuzenduta (18:30), 500 ogitarteko banatuko dituzte bertaraten direnen artean (arratsaldean) eta umeendako jolasak izango dira, besteak beste. "Summer Udalekuak programan parte hartzen duten 300 haurretik gora izan dira antolatzaileak", jakinarazi dute Tilin Talan Haur Eskolatik.

## Ehun lagunek baino gehiagok parte hartu dute mintzapraktiketan

Parte hartzea "oso baliagarria" izan dela jakinarazi dute antolatzaileek

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Bergaran izan du arrakastarik handiena bukatu berri den ikasturtean egindako Debagoieneko mintzapraktika egitasmoak. Hori erakusten dute, behintzat, datu hotzek, zenbakiek: Bergaran 68 mintzalagun elkartu dira; Arrasaten 67, Eskoriatzan 25; eta Aretxabaletan 20 lagun.

Edozelan ere, kopuruak modu positiboan baloratzeaz gainera, zenbakiez harago, orokorrean antolatzaileek egiten duten balorazioa ere oso ona da: Bergarako Jardun elkarteak, Arrasateko AED elkarteak eta Aretxabaletako Loramendi elkarteak.

"Ikasturte bukaeran, Topagunearekin batera egin ohi izan dugun balorazioak erakutsi digu partaideei mintza-taldeetan parte hartzea oso baliagarria zaiela. Eta beraiek ere (bidelari-bidelagunak) ikasturtearen balorazio orokor oso ona egiten dute (...) Ikusten da berba taldekoek euren artean konfiantza lortu dutela, euskaldun-zaharrei esker, taldean gustura daude, pozik giroarekin euren zailtasunak, konfiantza lortuaz, gutxitzen doazela, soltura hartzen doazela, adibidez, merkatariengana doazenean, edo



Mintzalagunak, Santa Isabel hilerria egindako bisitan. | ZAHARBERRI

euren artean euskaraz berba egiten dutenean...", azaldu du Maitena Aranak, Debagoieneko mintzapraktikako teknikariak. "Hori da euren helburua, euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea; ze zailtasun handiena hori da eta, herrian kosta egiten da, ohitura falta dago euskaraz egiteko", gaineratu du Aranak. Eta horrekin batera, jakinarazi du bukatu berri den ikasturteko partaideek datorren ikasturtean ere "jarraitzeko gogoia eta ilusioa erakutsi" dutela.

**Izen-ematea zabalik**

Kontuak kontu, aurtengo partaideez gainera, gehiagorendako lekua ere badute mintzalagun egitasmoetan. Baldintza bakarra bete behar da parte hartzeko: euskaraz komunikatzeko gutxienezko maila izan behar dela. Edozelan ere, Aranak jendea animatu gura du "lotsak galtzera eta euskaraz egitera". Izena emateko, aipatutako euskara elkarteetara, Eskoriatzako kultura etxera edo Oñatiko Udaleko Euskara Saile-ra jo daiteke.

## Idazkari sozialista berriak Euskadin eta Gipuzkoan

Irailaren 20ko eta 21eko kongresuan aukeratuko dute Gipuzkoako idazkari orokor berria

U.M. | ARRASATE

"Emaizta ezin atseginagoa izan da. Militanteen zuzeneko botoa jasota, agerikoa da alderdi sozialista bera aterala dela irabazle. Historian lehenengoz eman da boto zuzena idazkari orokorra aukeratzeko. Prozesu garbia izan da, eta uste dut alderdi askok begiratu beharko lioketela, demokrazian gauzak zelan egiten diren ikusteko". Berba horiekin baloratu du Arrasateko sozialisten idazkari orokor Paco Gartzia

alderdi sozialistan Estatu mailan gauzatu den barne-hauteskundearen prozesua. Emaizari buruz galdetuta, berriz, Arrasaten ere Pedro Sanchez izan da garaile, "alde oso handiarekin".

**Mendia eta Arriola nahi**

Espainiako idazkari orokorra aukeratuta, irailera begira daude orain sozialistak, baita Debagoienekoak ere. Izan ere, batetik, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako idazkari orokorrak auke-

ratzeko ezohiko kongresuak egingo dituzte irailaren 27an.

Eta bestetik, Euskadiko idazkari orokorra aukeratzeko halako beste bat egingo dute irailaren 20an eta 21ean.

Azken horren kasuan, Idoia Mendia da, oraingoz, aurkeztu den hautagai bakarra; bada, Arrasateko idazkari orokorrak aurreratu du berori babestuko duela "pertonalki".

Gipuzkoako barne-hauteskundeak dagokienez, berriz, hor ere hautagai bakarrak aurkeztu du bere burua, oraingoz: gaur egun idazkari orokorra den Iñaki Arriolak. Eta kasu horretan ere, Gartzia bera "Arriolaren aldekoa" izango da. "Hautagai gehiago aurkeztuta ere" haren alde egingo zukeela azpimarratu du, gainera, arrasatearrak.



EZKONTZA ERREPORTAJEAK  
ESTUDIOKO ARGAZKIAK  
[www.fotobegira.com](http://www.fotobegira.com)

*Begira*  
argazkilaritza



ILARGI PLAZA, 1

ARETXABALETA

943 53 49 45



Joseba Egibar | EAJren Gipuzko Buru Batzarreko presidentea eta bozeramailea Legebiltzarrean

# "Denborak esango du zeinek babestu duen historikoki kutxek izan duten eginkizuna"

- ▶ Ezker abertzaleak Kutxabanken auzian izan duen joakabidea kritikatu du GBBko buruak
- ▶ "PSOEk ez du bereizketarik egin Euskal Herriari dagokionez: lehengo lepotik burua!"

ENENKO AZKARATE | ARRASATE

Legebiltzarreko ikasturtea amaitzean dela, gaurkotasan politikoaren erreposoa egin du Joseba Egibar Gipuzkoako jeltzaleen buruak. Sozialisten idazkari nagusi berria, Urkulluren Jaurlaritzaren jarduna eta Gipuzkoako politika ditu berbeta gai.

**Pedro Sanchez aukeratu dute Espainiako sozialistek PSOEk idazkari nagusi izateko. Ustekabea izan da zureta?**

Prozesu guztia izan da ustekabea. Rubalcabaren dimisioa, idazkari nagusi berria aukeratzeko prozesua... Errespetu guztiakin, iruditzen zait hautagaiek ez dutela aparteko heldutasun politikorik adierazi. Ikusi behar dugu zer dioen Sanchezek, baina hautagaiei ez diet ideia berririk ikusi. Euskal Herriari dagokionez, ez dute bereizketarik egin, eta, Kataluniaren gainean esan dutena entzunda, ez da inongo berritasunik. Estatu ereduari buruzko hausnarketarik ez dute egin... Lehengo lepotik burua! **Zelakoak dira orain sozialistekiko harremanak hemen eta Madrilen?**

Harreman onak baino gehiago, dira interesatuak. Interesa zentzu noblean ulertuta. Euskal Autonomia Erkidegoan eta, epe ez hain luzean, Nafarroan ere bai, bi alderdi nagusi izango dira. Eta, hortik aparte, gainerako alderdiak ikusiko dugu non kokatzen diren. PSE-EEK, batez ere Gipuzkoan, izan du garai bat, arazo sozialak tarteko, eta erakutsi nahi izan digu jeltzaleoi beste logika politiko bat posible dela, Bildurekin ituna eginez. Baina urte eta erdiren ostean, konturatu dira hortik ez doazela inora; ondorioz, etorri dira guregana. Bestalde, era berean, sozialistak badatoz EAJren politika baldintzatzer. Izan ere, alderdi espainola dira. Eta ikuspegi horretatik, EAJk eman ditzakeen pauso estrategikoen abiadura baldintzatzen saiatu dira.

**EAJren eta PSE-EEren arteko ituna luza daiteke hauteskunde oster?**

Ikusten gabilta hauteskunde egunera arte sozialisten jokabidea dela ezker abertzalearekin harremanik ez edukitzea eta gurekiko ika-mikatan aritzea. Eta, hauteskunde ostean, emaitzak ikusi ondoren, aztertu behar da zelako itun edo koalizioak egin ditzaketen.

**Urte eta erdi egin du Urkulluren gobernuak. Helburuak betetzen ari dira?**

Hiru helburu marraztu zituen lehendakariak: jarduera ekonomikoa suspertzeko estrategiak gauzatzea; bakegintza eta normalizazio politikoa eta estatus politiko berria. Eta helburuak bideratzen ari dira. Ekonomia suspertzeko, esaterako, halere, enpresetan bereiziki, sindikatu, enpresaburu eta erakundeek eskutik joan behar dute, denek batera.

**Enpresaburu eta sindikatuen artean, baina, akordiorako zantzu gutxi ikusten da.**

Bai. Erreforma larriak ere egin dira, baina Euskal Herriaren ekonomiaren bihotzean industria dago eta hori zaindu egin behar dugu, etorkizunean industria izan dadin atzera ere ekonomiaren Barne Produktu Gordinareneko %30 inguru.

**Bake prozesua geldid da.**


ETAren indarkeria amaitu denez, bakea iritsi dela-eta, elkarbizitza, normalizazioa, bakegintza... hala-koetan zertarako gabiltzan pentsatzen duenik bada. Bakea iritsi dela eta kito, ez dagoela beste ezer egin beharrik. Baina hemen asko dago egiteko. Iragana hor dago, eta, giza eskubide guztien errespetutik abiatuta, kudeatu egin behar da sasoi berria. PPK eta PSOEk denboran atzeratu nahi dute ETAren desagertzea. Atzeratzen den neurrian denbora politikoa haiek kudeatuko dutelako. Estatu denbora irabazten ari da. Horregatik, beharrezkoa da ETAK edo ezker abertzaleak alde bakarreko urratsak egitea.

**Jonnathan Powell Euskal Herriaren da egunotan. Ze espero duzue bisita horretatik?**

Mc Guinness ere etorri da. Ondo etorriak. Halere, Espainiako Gobernuak atea itxita ditu eta denbora batez ez ditu zabalduko. Eta horri soluziobideak aurkitzeko baldin badatoz, ondo etorriak. Baina euskal gizarteak badaki garrantzitsua dela bakeaz gain normalizazioa eta bizikidetzaren lortzea.

**Estatus politiko berria da Eusko Jaurlaritzaren beste helburua. Ortuzarrek kontzertu politikoa proposatu du...**

EAJren eta Eusko Jaurlaritzaren posizioak ezagunak dira. Baina mundua aldatzen doa eta Katalunian eta Eskozian gertatzen ari dena, autodeterminazio eskubideak, subjektu politikoak... horiek eztabaidan daude. Hori irabazi dugu. Eztabaida horren ondorioak akordatzea edo adostea beste kontu bat da. Bakoitzak



Joseba Egibar, Arrasaten, oraingo astean. | ENENKO AZKARATE

**"Sozialistek ez dute egin estatu ereduari buruzko hausnarketarik"**

**"Beharrezkoa da ezker abertzaleak edo ETAK urratsak egitea"**

**"Etorkizuna baikor ikusten dut hauteskundeei dagokienez"**

jarri behar du bere proiektua mahaiaren gainean. Guretako ahalik eta akordiorik zabalena lortu behar dugu. Horrek ez du esan nahi batendako oinarrizkoa dena baztertu behar denik. Herri bat garelako argi dago. Eta, ondorioz, berezkoa du erabakitze eskubidea. Ariketa hori ados daiteke? Hori da PPri eta PSE-EEri egin behar diegun galdera eta ezin dezakegu onartu beto eskubidea. Elkarbizitzarako eskaintza egiten dihardugu, ezin du inork inposatu. Kataluniakoak ez du atzera bueltarik, erreferenduma debekatuko duten arren.

**Ekainaren 8ko giza katean horrenbeste jende espero zenuen?**

Asko bai, baina ez horrenbeste. Jendeak badu gogoa zerbait adierazteko, bistaratzeko. Baina ez zerbaiten aurka, zerbaiten alde baizik. Hori izan da posible, besteak beste, ETA ez dagoelako. Egongo balitz, Gure Esku Dago ez litzateke posible izango.

**EAJk mobilizatu du bere jendea?**

Bai, bai. Baina Gure Esku Dagoen eskatu ziguten alderdiak bigarren maila baten geratzeko. Tokian tokiko alderdikideak ibili dira. Batzuk entusiasmo handiarekin eta beste batzuk txikiagoarekin. Izan ere, herri honetan elkarri eskua ematea inportantea izanik, une batzuetan ez dira baldintzak ematen elkarri eskua emateko. Errespeturik ez badago, faltukeria da elkarri eskua ematea. Egunez irainak bota, gauez pintaketa bat jasan eta hurrengo egunean eskua elkarri? Zaila da. Ulertzeko modukoa da. Halere, benetan uste dut gisa honetako prozesuetarako beharrezkoak, ezinbestekoak, direla giza mugimenduek eta erakundeek edo alderdi politikoek eskutik behar dute, nork bere rola jokatuz, oreka garbiarekin eta naturaltasunez.

**Ezker abertzaleak kritikatu egin du du gutxi batzuen esku geratuko dela Kutxabank. Hala da?**

Ez da egia. Ezker abertzalea korapilo baten sartu zen hasieratik. Kutxabanken sartzeko bost ordezkari behar zituztela esan zuten. Baietz esan genien, baina uen hartan lau zeudela eta sartzeko eskatu genien, kudeaketa partekatua egiteko. Ezetz erantzun zuten. Galdu egin zuten. Eta errekursoak, irainak eta bestelakoak etorri dira ondoren. Denborak esango du zeinek babestu duen historikoki kutxek izan duten eginkizuna. Gipuzkoako familien ondasunak. Gipuzkoan aurrezten diren 100 eurotik 40 Kutxan daude.

**Maiatzaren 25eko azken hauteskundeetako emaitzak zuek esperotakoak izan ziren Gipuzkoan?**

Duela hiru urteko udal eta foru hauteskundeetan, ezker abertzaleak edo Bilduk lortu zuena olatu edo apar handi baten modukoa izan zen. Denbora pasa da eta gauzak bere onera etortzen ari dira. Europako hauteskundeak ez dira erreferentzia egokiena emaitzak alderatzeko eta udaltako eta foru diputazioen jarduna baloratzeke, baina gipuzkoarrek egin dute hori, neurri baten. Batik bat, Donostian edo, kasu batzuetan, hainbat herritan ere, hiri hondakinen gainean EH Bilduk darabilen posizio itxia dela-eta. Etorkizuna baikor ikusten dut hauteskundeei dagokienez.

**Elkarrizketa osoa:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



## ZABALIK

ANDONI  
URZELAIgoiena.eus/  
komunitatea/

## 'Pueden'

Espainolak badu ia desgertzeaz dagoen hitz eder bat: *simpatizante*. Ez du zertan *simpatiko* zaion horren jarraitzaile izan. Izendatzen duena esan nahi du: nolabaiteko simpatia ideia/talde bati. Garai batean barra-barra zerabilten komunikabideek. *Simpatizante de la izquierda* abertzale deitzen zizuten, ezker abertzalearen hainbat ideiarekin bat etorri ez baina presoen euskal herriratzea eskatzea bururatzen bazitzaizun. Hitzak erdibideko esparru batean kokatzen zintuen, beltzaren eta zuriaren artean dagoen eremu zabal eta beharrezkoan, nabardurik gabe pentsamendua dogma hutsa da eta. Ez zinen ezker abertzalearen jarraitzaile, baina bat zentozen haien zenbait eskarirekin.

Gaur ez, ordea: beltzaren eta zuriaren arteko eremu hori birrindu egin dute. Sinpatizante izatetik partaide izatera pasa gera beltzaren eta zuriaren artean kokatuak geundenak. Xake-mate.



Eskuineko *think-tank*-ak maisuak dira kontzeptuak nahi bezala bihurtu eta berrizendatzen; efektiboak dira, elite txiki baten onurarako egindako politikak gainontzekoentzat ere mesedegarriak direla sinestartzen baitgute.

Podemos-i etorri zaio txanda. Espainiako ezker berri-tzaileak dakarkien arriskua sumatu bezain laster makineria martxan jarri, eta atera dute txisteratik untzia: ETA-ren jarraitzaileak dira. Podemos ETA da, beraien interesei enbarazu egiten dien ideia/talde oro bezala. Harrapatu katua! Zer eta euskal presoen euskal herriratzearen aldeko aldarriaz bat egitearren!

Martxa honetan, XXI. mendean errege ahalguztidun bat *por decreto* izendatzea gauza erabat logiko, natural eta moderno delako sinestazko digute... Oh wait...

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



## GUTUNAK

Nolatan  
derrigortu,  
konpromisoa  
badago?

Mikel Uribebebarria eta Haritz Solupe

(Aretxabaletako EAJko udal taldearen izenean)  
Aretxabaleta

Atez atekoa etorri da. Etxeko hondakinak lagatzeko orain arte izan dugun edukiontzi sistema zuzen erabiltzen zuten aretxabaletarrek ezingo dute aurrerantzean borondatez eta askatasunez kudeatu eurek sortutako zaborra; are gehiago, atez atekoak behartzen duen loturari egokitu beharko zaie.

Aurreko asteotan edukiontzi berriak banatu direnean, Udal Gobernuak (Bildu) herritarren "konpromisoa" zoriendu du. Bailarako edozein herritan baino hobeto erantzun dute aretxabaletarrek edukiontziak jasotzeko orduan (%90).

Berandu bada ere, badirudi Udal Gobernuak konturatu dela aretxabaletar gehiengo zabal batek badaukala zaborren

gaiarekiko "konpromisoa". Izan ere, ezin dugu ahaztu herritarren konpromisoarekiko konfiantza falta izan dela atez atekoa ezartzeko Bilduk erabili duen arrazoi nagusia. Behin eta berriz errepikatu dute, gainera, derrigortasunik gabe herritarrek ez diotela erantzungo konpromisoari. Hori izan da euren argudio bakarra. Baina oraingoan ere herriak ozen erantzun dio Udalaren konfiantza falta horri.

Tamalez, beti egongo da gehiengoaren nahia (%90) eta konpromisoa narrastuko duen gutxiengo herritar multzo bat (%10), bai zaborrak sailkatzeari zein bestelako bizikidetzari eta gizalegezko kontuei ere dagokienez. Hala bada ere, kopuruok ikusita ez dago biztanle guztiak era berean tratatuak izateko nahikoa arrazoi. Udalak herritarren %90en konpromisoei erantzun behar die sustapenetik eta sentibilizaziotik, %10en utzikierarengatik herritar guztiok neurri zuzentzaile berak ezarri ordez. Derrigortasunik herritarren borondatezko konpromisoa irentsiko duen bezala irentsiko gaitu gutxiengoak, Udalak

herritarren konpromisoari entzungor egin eta bereari eusten badio.

Aretxabaletarrek konpromisoa daukagun momentutik, derrigorrezko atez atekoak ez dauka zentzurik.

## Eskerrik asko

Idoia Larrañaga  
Antzuola

2013ko uztailearen 21ean, nire gurasoek Gorla aldean paseo eder bat eman eta Kantinan pintxo goxo bat jan ondoren, aita ondoezik suertatu zen. Zorionez, kantina inguruan paseatzen zeuden bakarrak ez ziren eta bi aldiz pentsatu gabe hainbat pertsonak nire aitari eta amari laguntza eskaini zieten: larrialdietara deitu, bihotzeko masajea, amaren ondoan egon...

Ordutik askotan gogoratu gara beraiek han egotearen balioaz, "eskerrak bakarrik ez zeudela", beraiek emandako laguntza paregabeaz, eta gure familiaren esker ona beraiei nola helarazteaz.

Datorren astelehenean urtebete aita Gorla inguruan

hil zela. Mendira paseatzera joan eta larrialdi egoera batean dauden pertsonekin topo egitea gure bizitzan noizbehinka gertatzen den egoera bat da, zorionez. Ez da egoera "samurra" izaten eta ziur nago nire gurasoei lagundu zietenek ere ez dutela gertaera hura erraz ahaztuko.

Lerro hauen bidez, gure familiaren izenean, bihotz-bihotzez, gure eskerrik beroena eman nahi diegu iazko uztailearen 21ean Gorlako kantina inguruan nire gurasoei lagundu zieten guztiei. Mila esker.

Gaztelera galdu  
behar duteJon Otero Urizarren  
Arrasate

Hiru eskola eredu daude Hego Euskal Herrian. Gaztelera, euskaraz eta euskaraz eta gaztelera. Denetan da atzerri hizkuntza ingelesa.

Konstituzioak behartzen du gaztelera jakitera. Ondorioa da D erudian gaztelera ikasgai moduan ematea. Ez da posible; 10 urteko neska edo mutil batek gaztelera ez badaki, zergatik izan behar du ilegala? Hau ez da Euskal Herria? Lortu behar dugu gaztelera obligazioa ez izatea. Independentzia edo dena dela.

Ikasten dute euskara ikastetxeetan, baita gaztelera ere. Eskolatik kanpo gaztelera indar handiagoa duenez, erdaraz mintzatzen dira.

Lege madarikatu hori ezereztatzen badugu, gaztelera ez da izango obligazioa. Guk, euskaldunok, sortu ahal izango dugu eskola eredu bat, non euskara gehiago eta ingelesa gehiago eta gaztelera ezer ez den emanen. Gurasoen aukera izango da gaztelera erakutsi edo ez. Lau eredu izango dira. Edo indar abertzaleek A erudia kenduko dute. Hala, gurasoen nahiaren arabera, umeek ez dute gaztelera ikasiko eskolan, eta ez dira ez legezko izango.

Euskara indartzeko kaleetan ume eta nerabeek gutxika gaztelera galdu behar dute.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Ezingo dira kapituluka bidali. Gutun edo irizti-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun, gutun bakarrekin baizik. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otlalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
Otlalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiano, Zortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetzatzaile eta banaketa** Maria Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otlalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otlalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09  
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otlalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# HERRIAK

ESKORIATZA

## Zaldibar antzokia kudeatzeko aukera izango dute eskoriatzarrek

- ▶ Lanak bukatzean daude oraindik, baina udazkenean zabaltzea espero du Udalak
- ▶ Kultura Mahaia osatu gura dute programazioa eta aurrekontua herritarrekin zehazteko

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Zaldibar antzokiaren irekiera gero eta gertuago dago. Atzeratu egin dira lanak, udal ordezkariak gura baino gehiago, baina udazkenean zabalduko dute, lehenago ez bada geroago. Egoitza dotorea zabalik bai, baina zertarako erabili hori? Zer antolatuko bertan? Galdera horiek erantzuteko herritarrek gura dute lagun Udalak; proposamenak egin, iritziak bota, kezak partekatu eta antolatzen lagunduko duten eskoriatzarrek.

Herritar horiek Kultura Saileko ordezkariarekin elkartuko diren bilguneari Kultura Mahaia jarri diote izena: "Udal Gobernuaren proposamen bat da Kultura Mahaia, Zaldibar antzokia zabaltzen denerako. Pentsatzen dugu udazkenean inauguratuko dela, eta ordurako talde bat osatu gura dugu antzokia kudeatzeko", argitu du Arantza Untzuetak, Kultura teknikariak. Martitzenean egin zuten lehen bilera, Kultura Mahaia osatzeko lehen hartu-emanan, hain zuzen ere, herriko talde eta elkarteetako ordezkariarekin. Asko ez ziren elkartu, Untzuetak onartutako moduan, baina bai lanerako gogotsu daudenak: "Etorri diren ordezkariak gustatu zaie proposamena. Garatu beharreko ideia dela komentatu dute eta aurrera egin dezan ahalegin guztia egin beharrekoa". Besteak beste, Eingeinkeko, Aitzorrotzeko eta Olazar erretiratuen elkarteak ordezkariak zeuden.

### Programazioa eta aurrekontua

Kultura Sailak orain ere badauka Kultura azpibatzordea, baina Kultura Mahaia eratuta azpibatzorde hori indartu eta handitu egin gura du. Batez ere, bi funtzio beteko dituela iragarri zieten martitzenean elkartutako Untzuetak teknikariak eta Jose Angel Petralanda Kultura zinegotziak: funtzio erabakitzailea eta funtzio aholku emalea. Antzokiari dagozkion erabakiak hartuko ditu, bai programazioari dagozkionak –jarduerak, egitaraua...–, bai aurrekontuari dagozkionak. Azken horren kasuan, mahaia proposamena egingo luke eta gero Udalarekin adostu.



Kultur Mahaia lehen bileran elkartutako kideak kultura teknikari eta zinegotziarekin. | M.A.

Bestetik, antzokiari dagokion erabilera araudiaren zirriborroa eginda dauka Udalak eta hori mahaian aztertu, eztabaidatu eta onartzea da asmoa. Izan ere, udal ordezkariak argi daukate Udala ez dela Eskoriatzako kultura eragile bakarra, herrian beste asko daudela: "Hori jakinik, herritarren eskura jarri gura du baliabide

oso garrantzitsua, aukera berriak zabalduko direlako eta merezi duelako bide horretatik jotzea", dio Kultura teknikariak.

### Erabilera askotariko aretoa

Santa Ana auzoan dagoen Zaldibar antzokiak 155 lagunendako lekua izango du, eserita. Beheko solairuko jarlekuak ken-

tzeko moduan jarri dituzte, eta, hala, 320 bat lagun kabituko dira; goiko solairuan, oster, 55 bat. Kultura ekitaldiek eskatzen duten baliabideekin ekipatzen ahalegindu dira. "Proiektzio sistema, soinu eta argi ekipamenduak, agertoki txukuna... Hortaz, Eskoriatzan antolatuko diren ekitaldietarako behar bezala

egokituko da". Eta beheko solairuko jarlekuak kentzeko moduan jarri dituztenez, hainbat erabilertarako aukera eskainiko du areto horrek: antzerkiak, ikastaroak, kontzertuak... Udalaren asmoa da langile bat jartzea, egun erdiz.

### Irailean beste deialdi bat

Zaldibar zabaltzen denerako Kultura Mahaia martxan egotea gura dute. Herriko eragile eta taldeetako ordezkariak dago zabalik, baina ez horiei bakarrik: "Eskolei, unibertsitateari, Udalean ordezkariak duten alderdi politikoei... eta norbanakoei ere zabalik dago; izan ere, herritar askok dituzte era bateko edo beste zaletasunak eta horiek garrantzitsuak izango dira mahai horretan", esan zien martitzenean elkartutako Untzuetak. Baina zelan iritsi herritar horiengana? Horixe da Kultura Saileko kideen kezka, eta horren gainean ere jardun zuten.

Irailean, oportunitate bultan, herritarrek martxa hartzen dutenean eta antzokiaren lanak bukatzean daudela, beste deialdi bat egingo dute. Eta gurako lukete herritarrek konpromiso txiki hori hartzea; izan ere, uste dute aparteko aukera dutela euren nahiak eta gogoak asetzeko Zaldibar antzokia martxan jartzen dutenean.

### Urbanizatzeko lanak egiten

Azken lanak, hirugarren faseari dagozkionak, egiten dabilta: antzoki aurreko urbanizatzeko lanak. Maiatzeko lehen astean hasi zituzten, eta aparteko ezustekorik ez bada, behintzat, hiru bat hilabetean bukatuta izango dira.

Antzokiaren barrualdeko lanak bukatuta daude eta egiteko geratzen dena da ekipatzea eta bazterrak txukuntzea. Udal ordezkariak ez dira ausartzen inauguratze datarik ematen, baina udazkenean zabalik gura dute.



Zaldibar antzokiaren aurreko kalean lanak egiten. | M.A.

ESANAK

"Kultura taldeez gain, eskola eta norbanakoei ere zabalik dago mahaia"

"Eskoriatzako ekitaldietarako behar bezala egokitutako antzokia da"

A. UNTZUETA | KULTURA TEKNIKARIA



Garazi Mitxelena eta Alberto Vesga kanpainarako txartelek. | JOKIN BEREZIARTUA

## Herriko saltokietan hondakinen sorrera prebenitzeko kanpaina

'Etorkizuneko Arrasate eraikiz' du izena eta uztailaren 3an abiatu zen; erantzun ona izan du

J.B. | ARRASATE

Herriko saltokietan hondakinen sorrera prebenitzea. Horixe da *Etorkizuneko Arrasate eraikiz* kanpainaren helburu nagusia. Mondragon Unibertsitateko Diseinu Ingeniaritza ikasketak egiten diharduen Garazi Mitxelena eta haren klasekide baten proiektutik sortu zen: "Hondakinak ez sortzeko praktika onak aholkatzen dira, eroslea ere kontzientzia dadin".

Ikasturte hasieran Ibai-Arte merkataritza elkartarengana jo zuten eta lau dendak erabaki zuten parte hartzea: Sustrai fruta-dendak, Resusta Karririk, Arrasate Zook eta Biotekak -itxi egin du-. Hasteko, denda bakoitzaren beharrak identifikatu zituzten, eta gero, hondakinen sorrera nola prebenitu adostu zuten arduradunekin batera.

Denda bakoitzaren errealitatea ezberdina da hondakinen sorrerari dagokionez, eta, horregatik, kasuaren arabera metodologia garatu dute: "Sustrai dendan, esaterako, fruta zein barazkien dako poltsa edo arrautzendako ontzia etxetik dakarrenari txartel bat banatu eta laukitxoak zigilatuko zaizkio". Hala, txarteleko laukitxo guztiak zigilatuta dituenak hainbat zozketatan hartuko du parte.

**Sortzen direnei irtenbide bat** Hondakinik ez sortu eta eroslea sentsibilizatzeaz gain, hondakinei irteera edo beste erabilera bat eman gura diete. Kanpaina uztailaren 3an jarri zen martxan eta jendeak "ondo eta ilusioz" hartu du. Kanpaina martxan jarrita, denda bakoitzak erabakiko du noiz arte jarraitu.

## Mondratek Gipuzkoako bigarren mailan jokatu du datorren denboraldian

J.B. | ARRASATE

Mondrate areto futboleko taldeak Gipuzkoako bigarren mailan jokatu du datorren denboraldian. 2013-2014 denboraldian hirugarren mailako liga erregularreko txapelketa izan zen, baina igoera lortzeko partidua erabakigarria galdu egin zuten. Hala ere, Gipuzkoan bi talde

sortu dira eta horrek eragin du, besteak beste, bigarren mailan plaza bat hutsik geratzea. Antolakuntzak asteon egin dio gonbidapena Arrasateko taldeari plaza hori betetzeko. Taldekideek pozik hartu dute albiste, eta, iragarri dutenez, abuztuko azken astean hasiko dituzte entrenamenduak.

# Baserritarren azokan, ondo jaten ikasteko aukera

Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionistak tailerra emango du, 10:30ean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatua da bihar, eta, beraz, baserritarren azoka jarriko dute Seber Altube plazan (09:00-14:00). Hamabi postu izango ditu biharkoak: lau Arrasatekoak, lau bailarakoak eta beste lau Euskal Herrikoak. Beste azoka batzuetan postu gehiago egon izan dira eta beherakada Tolosan egingo den beste azoka batek eragin du. Udako produktuak egongo dira: tomatea, piperra, pipermina, lekak, letxugak... Azoka amaieran, hileroko zozketa egingo dute; bezeroen artean baserriko produktuz osatutako saski bat zozketatuko da.

**'Ondo jan ondo zahartzeko'**

Uztaileko azokaren berezitasuna izango da Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionistak eskainiko duen tailerra. *Ondo jan ondo zahartzeko* izenburuarekin, elikadura eta bizi-ohitura onen garrantziaz jabetzeko tailerra antolatu dute Udalak eta Jakinek. Diaz de Monasteriogurenek aurreratu duenez, "gosari osasuntsuak" emango dira: "Sasoi-ko fruta izango da oinarria, eta, horrez gain, esnekiak, zerealak eta beste zenbait produktu tartekatuko ditugu".

Biharko tailerra herritar edadetuenei dago zuzenduta, bereziki: "Adin tarte horrekin lan egitea asko gustatzen zait; izan ere, aitona-amonak oso garrantzitsuak dira gure meeen



Ane Gorosabel gaztea martxoko azokan; haren lehena izan zen. | IMANOL SORIANO

elikaduran". Aitona-amonak elikaduraren gaiaren aurrean "oso aktibo" daudela gaineratu du nutrizionista oñatiarrak: "Galdera askorekin etortzen dira, jakin-min handia dute. Gainerako herrietan egiten ditugun hitzaldietara adin horretako

jendea etortzen da, nagusiki. Gastronomía gustatzen zaie, erosketetan aritzen dira burubelari eta asko dakite".

Zalantza horiek guztiak argitzea du helburu biharko saioak. Diaz de Monasterioguren 10:00etatik egongo da bertan, baina saioa 10:30ean hasiko da.

ESANAK

**"Aitona-amonak garrantzitsuak dira gure meeen elikaduran"**

AMAI DIAZ DE MONASTERIOGUREN

**Ikasturtearekin "pozik"**

Ikasturteko azken azoka izango da biharkoa, abuztuan ez delako egiten. Orain arteko balorazio positiboa egin du Udaleko Enplegu eta Garapen teknikari Marga Garmendiak: "Azoka egonkortu da eta saltzaile moduan gazteren bat ere sartu da. Azoka bakoitzean egin diren ekintza bereziek harre- ra ona izan dute, pozik gaude".

## Uraren Eguna Txatxilipurdiren udalekuan

Udaleku irekietan ohikoa den Uraren Eguna ospatu zuten umeez martitzenean. Eguraldia lagun, gustura asko ibili ziren Seber Altube plazan jarritako igerileku txikietan. Gaur amaituko dira udalekuak, apar festarekin.



ANE ELORDI



## UDAKO AZTERKETA BEREZIA

### Olio SINTETIKO aldaketa + olio-filtroa + aire-filtroa + 11 punturen azterketa

**Wir leben Autos.**

**Gainera, autorako parasol bat opari**

Eskaintza baliagarria abuztuaren 31ra arte iragarki hau eramanda.



**PREZIO BAKARRA**

**GASOLINA ETA DIESELA**

**MARKA GUZTIAK**

# 99€

BEZa barne

**www.giauto.info**

REGISTRESE EN myOpel.es

**Elgoibar**

Olaso Kalea, 25  
20870 ELGOIBAR  
943 74 40 12

**Bergara**

Bº Olabarrena s/n  
20670 BERGARA  
943 76 33 44

**Olaberria**

Bº Yurre, Poligono Karabi, s/n  
20270 OLABERRIA  
943 88 51 50

**Anoeta**

Poligono Bentalde, 3  
20270 ANOETA  
943 65 00 49

JARRAITU:



# Dena gertu Zerrajeran, Santa Marinar eta Maalan jaiak eztanda egin dezaten

Auzoetako festek xarma berezia dute; gero eta diru gutxiago izan arren, oraindik ekintzei eusten diete

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Sanjuanek uda iragarri ostein, Arrasateko zenbait auzo eta kaleetan festak ospatzen dira urtaro beroenean. Aurrekontu txikiarekin –urtez urte gero eta txikiagoak, jai batzordeen arabera– eta borondatezko lan handiari zein auzoko komertzioen laguntzari esker mantentzen dira. Ez dira oso jendetsuak, baina "xarma berezia" izaten dute.

## Maalako jaiak, "xarma berezia"

"Xarma berezia" horren adibide dira hilaren 22an ospatuko diren Maalako jaiak: "Urte askoan ospatu dira, horrek berezi egiten ditu, baina baita jendeak jartzen duen gogoia eta giroa. Jai herrikoiak dira erabat", diote Maalako jai batzordeko kideek. Aste batzuk lehenago elkartzan hasten dira egin beharrekoak banatu eta ekintzak lotzen hasteko. Hala ere, egitaraua urtero antzekoa denez, arazo nagusia diru aldetik dator: "Urtetik urtera aurrekontu txikiagoa dugu eta buruhauste nagusia izan ohi da diru gutxiagorekin eskaintza nola mantendu". Aurten, Mery May musikari arrasatearraren zuzeneko izango da nobedade nagusia. Afarirako 60 bat lagun elkartzera espero dute; menu ederra izango dute aurten ere: menestra, Jose Mari Balantzategi *Aizkorita*-k prestatutako oilasko izter eta hegalak eta postreko izozkia eta pastela. Amaizteko, kafea eta topa egiteko xanpaina izango dute.

Bestalde, Zerrajerako jaiak gaur ospatuko dira. 2011n ospatu ziren lehenengoz, eta urtetik urtera gero eta auzotar gehiagok hartzen dute parte. Era berean, gaur hasi eta domekara arte festa giroa izango da nagusi Santa Marinar: "Gonbidapena egiten diegu arrasatear guztiei jaiak gurekin batera ospa ditzaten", adierazi dute jai batzordekoek.

## ZERRAJERA KALEKO JAIK

### HILAK 18, EGUBAKOITZA

16:30 Margo tailerra.

17:00 Jolasak: puzgarriak, trikitaliak, mozerro-desfilea, konpartsa txikia, bola...

20:00 Tragoa, Erreka jatetxean, Portaloi taldeak girotuta.

21:00 Auzo afaria.

22:00 Dantzaldia DJ Amaia eskutik.

### OHARRA

Hurrek mozerrotuta eta helduek txapelarekin irten behar dute.

## SANTA MARINA AUZOKO JAIK

### HILAK 18, EGUBAKOITZA

17:00 Txokolate-jana Santa Marina elkartearen, umeendako.

18:00 Haurrendako jolasak.

18:00 Eskularen erakusketaren irekiera Toki Argi tabernan.

18:00 Mahai-futbol txapelketa Montserrat tabernan.

19:00 Banderaren igoera.

19:00 Pintxo-pote nagusia; sagardo kupela MJ eta Donosti tabernetan.

19:00 Boloa auzo alkatezatiak.

19:30 Kilikiak.

20:00 Elektrogaia Open Air, Santa Teresako aparkalekuan.

23:00 Twister Show taldearen *El hombre de las mil caras* ikuskizuna Agerre plazan.

### HILAK 19, ZAPATUA

12:00 Suziri jaurtiketa.

12:00 Los Morotes txaranga.

12:00 Karibe festa MJ tabernan.

13:00 Igelaren jokoa Agerren.

18:00 Billar lehiaketa Montserrat tabernan.

19:00 *Kojonudoak* Agerre plazan, auzoko txaranga antolatuta.

19:00 Doako pintxo Bide-gain elkartearen.

19:30 Kilikiak.

20:00 Elektrogaia Open Air, Santa Teresako aparkalekuan.

22:30 Nuevo Ciclon orkestra. Etenaldian, su artifizialak.

### HILAK 20, DOMEKA

12:00 Bolo txapelketako 29. edizioko finala.

12:00 Haurrendako jolasak Agerre kalean.

12:00 Los Morotes txaranga.

13:15 Meza santua Mesedeetako Ama elizan.

14:00 Nagusiendako bazkaria Mesedeetako Ama ikastetxe ohian.

18:00 Bonba japoniarrak ludotekako aparkalekutik.

18:00 Mahai-futbol txapelketako finala Montserrat tabernan.

19:00 Barbakoa eta sagardo kupela Santa Marina kalean, Donostia eta Ugarte tabernetan.

19:00 Kilikiak.

21:00 Azken traka.



Ume asko erakartzen dituzte Maalako jaiak; irudian, iazko zaku lasterketa. | J.B.

## MAALA KALEKO JAIK

### HILAK 20, DOMEKA

12:30 Meza parrokian.

### HILAK 22, MARTITZENA

08:00 Suziri jaurtiketa.

17:00 Umeendako jolasak eta ondoren txokolate-jana.

19:00 Poteoa Arrasateko txistulariek girotuta.

19:30 Mery May musikari arrasatearraren kontzertua Monte tabernaren atarian.

21:00 Afaria estradetan.

22:00 Kafea, postrea eta dantzaldia.

23:00 Su artifizialak.

## Belvis Pardo eta Xavier Jean Paul Boitel Tximeleta 88 dastalekuko jabeak

# "Gosarietako croissant eta opilak bertan egiten ditugu, baita ogia ere"

Uztailaren 9an inauguratu zuten Arrasateko San Andres auzoan Tximeleta 88 dastalekua. Haurrendako txiki park bat dute bertan, eta baita mota askotako zerbeza eta kafeak ere.

**B**elvis Pardo eta Xavier Jean Paul Boitel dira dastalekuko jabeak. Ilusioz zabaldu dute lokal berria.

### Nolatan erabaki zenuten dastalekua zabaltzea?

Betidanik izan dugu gogoia negozio berri eta propioa sortzeko. Herrian umei eskainitako leku bat zuen dastalekurik ez zegoela konturatu ginen, eta aurrera eraman dugu hasieran erdi brometan hasi zen ideia. Urtarrila ezkerreko ibilira gara ideia lantzen, eta, azkenean, zabaldu dugu. Umeendako txiki park moduko bat jarri dugu lokalean, paretan arbela ere badute umeek, mahai



Belvis Pardo eta Xavier Jean Paul Boitel, ireki berri duten dastalekuan.

“Pertsona guztiak gonbidatu nahi ditugu zerbait hartzera etor daitezten. Umeek primeran pasako dute, eta helduendako eskaintza zabala daukagu dastalekuan.”

-futbola ere bai, kanasta bat eta mahai txiki pilotxo bertan marrazkiak egin ditzaten.

**Gosariak eskaintzen dituzue, ezta?**  
Bai. Bertan egindako croissant eta opilak ditugu gosaritarako eta guk egin-

dako ogia ere saltzen dugu dastalekuan.

**Zerbeza eta kafe eskaintza zabala ere baduzue.**

Belgikako Brabante markako zerbeza daukagu; ez du horrenbeste CO2rik eta gutxiago betetzen du,

bost motatakoak ditugu. Kafezaleendako ere eskaintza zabala daukagu.

**Ogitarteko eta plater konbinatuak ere badituzue.**

Bai, eta bertan egindako ogiarekin eskaintzen ditugu horiek ere.

# TXIMELETA

DASTALEKUA

88

Brabante

08:00etatik aurrera zabalik!



Araba etorbidea 3 - ARRASATE - 943 08 78 52

# Santa Marinako jaiak egitarau zabalarekin datoz

Aritzeta eta Koru Parrokialaren emanaldiekin eta mezarekin hasiko dira gaur

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Santa Marina jaiak gero eta ekitaldi gehiago dituzte urtetik urtera. Gaur, egubakoitza, hasi eta domekara bitartean askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, ume, gazte zein nagusiendako.

Gaur, Santa Marina eguna, 19:00etan abiatuko da egitaraua mezarekin. Koru Parrokialak abestutako meza izango da – Perosiren *Misa Pontificalis* ezaguna abestuko dute –, baina meza aurretik ere abestuko dute; hain zuzen ere, Miguel Gonzalez Bastidaren *Santa Marina* himnoa abestuko dute.

Mezaren ondoren, jaietan klasiko bilakatu den Aritzeta abesbatzaren kontzertua egongo da: "Gabonetako kontzertuarekin batera, Aritzeta sorreratik sekula hutsik egin ez duen emanaldia da", esan du Xabier Altzola abesbatzako presidentek. Sei obrako emanaldi oso bariatua egongo dute. Eta egunari amaiera emateko, dantzaldia egongo da, 22:00etan, Matxiategi plazan.

## Umeendako ekintza ugari

Zapatuan, bailarako finalista beteranoen arteko errebantxa jokatu da Udal Pilotalekuan, 13:00etan. 13:30ean, triki-poteoa egongo da Matxiategin eta arratsaldean barrena, mus, tute eta poker txapelketak jokatu dira auzoko tabernetan. 18:00etan, berriz, bolo, toka eta igel txapel-



Koru Parrokialak San Pedro egunean ere abestu zuen. | IMANOL SORIANO

ketak jokatu dira Aitonetan, eta han banatuko dituzte, baita ere, karta txapelketetako sariak. Txorizoa egongo da hurbiltzen direnendako. 19:00etan, kukainak egongo dira umeendako; 20:00etan, Alemaniako saltxitxak dastatzeko aukera egongo da, zuzeneko musika entzuten den bitartean.

Domekan, Udal Musika Bandak kontzertua egongo du,

12:30ean, Udal Pilotalekuan –aurretik kalejira egongo dute–. 13:00etan, berriz, Arantxak eta Pantxoak emanaldia egongo dute; 16:30ean, puzgarriak egongo dira umeendako; 17:00etan, zaldian ibiltzeko aukera izango dute txikienek eta 19:00etan, apar festa egongo da. Jaiei amaiera emateko, Idoia Bediaga gazteak emanaldia egongo du.

## Idoia Bediaga abeslariaren saioa

Domekan, gitarrarekin lagunduta, kantaldia egongo du Idoia Bediagak, 21:00etan, Fraiskozurin. Telecinco kate espainiarreko *La Voz* abeslari lehiaketan hartu zuen parte abadiñarrak. Ama eta familia bergararrak ditu. Lehen maketa grabatu nahian dabil, eta bere ahotsa ezagun egin nahian: Youtuben Lana del Rey, Russian Red eta Adele musikarien cover ezagunak eskegitzen ditu.

## "Gobernu taldea ez dago legitimatuta eskatzeko"

M.B. | BERGARA

Bergara Garbiak oharra kalera-  
tu du, herria garbi mantentzeko  
Udalak abian jarritako *Garbiena...*  
*zikintzen ez duena* kanpainaren  
harira. Plataformakoen esanetan,  
alkateak kolaborazioa eskatu die  
bergararrei herri garbiagoa iza-  
teko. Hori "helburu txalogarria"  
dela uste dute eta "bergarar guz-  
tiek nahi dutena". Baina pentsa-  
tzen dute "gizatalde bati kolabo-  
razioa eskatzeko, eskatzaileak,  
horretarako legitimitatea" izan  
behar duela. Gehitzen dutenez,  
legitimitate hori "ez da erosten,  
irabazi baizik, erabakietan joka-  
bide demokratikoa erakutsita.  
Eta horretan, gobernu taldea ez  
da ezer positiboren erakusle,  
kontrakoa baizik". Eta gehitzen  
dute: "Herri kontsultan hondaki-

nak batzeko euren sistema poli-  
tikoaren kontrako erabateko  
jarrera erakutsi duten herritarrei  
–4.771 boto emaile– sistema hori  
bera inposatzen dien Udala ez  
dago legitimatuta herritarroi ezer  
eskatzeko".

Diotenez, "sarri" salatu dute  
herria garbi ez ikustea, eta gehi-  
tu dutenez, "modu masiboan  
pegatinak eta pankartak jartzea-  
ren kontra" azaldu dira: "Gehie-  
nak, gobernu taldearen inguru-  
koak, eta, gainera, herria apain-  
tzen lagatzen dituzte apurtu eta  
ingurua zikindu arte". Amaitze-  
ko, Udalak kanpaina berean  
egindako ideia eskariari errefe-  
rentzia eginez, diote: "Gure ekar-  
pena da etxean predika egizuela,  
zuen lerroen artean, eta herria  
garbiago egongo da".

## Amets Arzallus eta Xabier Amuriza Basalgo auzoko jaietan

M.B. | BERGARA

Santiago jaiak ospatuko dituzte  
Basalgo auzoan datorren egue-  
nean hasi eta zapatara bitartean.  
Eguenean, hilak 24, etxafuego  
eta kanpai hotsarekin iragarriko  
dute jaien hasiera, 18:30ean, eta  
gero, makala jasoko dute, urte-  
roko ohiturari jarraituz.

Uztailaren 25ean, egubakoitza,  
meza nagusia egongo da, 11:00etan;  
12:00etan, berriz, Basalgora 32.  
txirringularrak igoera jokatu da,  
eta, antolatzaileek esan dutenez,  
nahi duten gaztetxo guztiek izan-  
go dute parte hartzeko aukera.

12:30ean, erromeria egongo  
da eta 14:30ean, berriz, bertso  
bazkaria, Amets Arzallus aur-  
tengo Bertsolari Txapelketa

Nagusiko irabazlearekin eta  
Xabier Amurizarekin. Soinujoleek  
ere alaituko dute bazkaria. Izena  
uztailaren 21a baino lehen eman  
behar da Basalgokoak elkar-  
tean.

## Auzokoak protagonista

Uztailaren 26an, zapatua, meza  
egongo da, 12:30ean, eta bukatu  
eta gero, luntxa emango dute  
bertaratzen diren guziendako  
eta umeendako jolasak ere egon-  
go dira.

14:30ean, berriz, auzoko  
erretiratuek eta jai batzordeko  
kideek bazkaria egongo dute  
elkarrekin. Interesatuek hilaren  
26a baino lehen eman behar  
dute izena.

## San Joxepe erretiratuen elkartekoek martxa bat antolatu dute Igeldo eta Oriu artean hilaren 23rako

San Joxepe erretiratuen elkarteak mendi martxa antolatu du uztailaren 23rako, eguaztena. Igeldo eta Oriu arteko mendi martxa egongo dute eta interesa duten guztiek eman dezakete izena. Irteera egunean 09:00etan abiatuko dira autobus geltoki nagusitik. Interesatuek San Joxepe elkartearen bulegoan eman dezakete izena.

## UDARAKO AUTOA PREST FORD MUGARRIN

Salmenta puntuak: ARRASATE / BERGARA • Tailerra: ARRASATE

**Zure erosotasunerako,  
Bergaran utzi autoa konpontzeko,  
Arrasatera eramango dugu eta konponduta  
bueltan jasoko duzu Bergaran,  
gainkostu barik\*.**

\* Bergaran tailerra ireki arte.

MUGARRI AUTOAK Amillaga 5. BERGARA. 670 82 71 86



disdira

ile-apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

TELEIXA  
BILTEGIAK

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93



Bizkaiko Travellin' Brothers musika taldeko kideak. | TRAVELLIN' BROTHERS

## Nerbioi ertzean konposatutako bluesa eta rocka Espoloian

Travellin' Brothers taldearen musika beltza ezagutzeko aukera ezin hobea gaur, 22:00etan

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Travellin' Brothers taldea berezia da oso. New Orleanskoa dirudien rock-and-rolla eta rhythm-and-blues jo arren, euren musika Bizkaiko bihotzean sortua da. Trebetasun handiz, Mississippiko musika Nerbioi ibaiaren ertzetara moldatzea lortu dute. Taldeak berezkoa duen euskal ukitua duen

AEBetako musika beltza ekarriko du gaur Berumuga ziklora.

### Ibilbide luzeko taldea

Eskarmentu handiko taldea da Travellin' Brothers, eta taldekideek batez beste 35 urte baino ez duten arren, 600 emanalditik gora egin dituzte. Otsailean seigarren diskoa aurkeztu zuten.

Zuzeneko emanaldi bizi eta ikusgarria eskaintzen duten blues alorreko musikariak dira, kalitate eta baikortasunez beteriko taldea, alegia. Espoloira gerturatzaren direnek zaila izango dute euren jarlekuetatik ez altxatzea, taldearen doinuak bizitzaren eta musikaren ospakizun hutsak dira-eta.

Izenak berak dioen moduan, talde familiarra da, eta esan gabe doa bidaiaria aldakorra ere bada. Horrek guztiak aukera eman dio Espainiako jaialdi, klub eta areto handi guztietan jotzeko, baita Europako herrialde askotan (Frantzia, Italia, Suitza, Alemania, Portugal...) bira eta itzuli arrakastatsuak egiteko. Inoiz alderik alde igaro du ozeanoa AEBetan ere jotzeko.

Bizitzaren eta musikaren ospakizunak dira talde horren zuzeneko kontzertuak!

### Askarruntz auzotarrak batzarrerara deitu ditu Udalak

Bergarako Udalak jakinarazi du Askarruntz auzoan mugikortasuna hobetzeko lanak egin behar dituela "epe laburrean" Gipuzkoako Foru Aldundiak, Udalak berak bultzatuta.

Bada hori dela eta, bertako auzotarrak batzarrerara deitu ditu Udalak, Diputazioak gauzatuko duen egitasmoaren inguruko azalpenak emateko asmoarekin.

Martitzenean (uztailaren 22an) egingo dute batzar informatiboa, 19:00etan, udaletxe-ko osoko bilkuren aretoan. Iragarri dute ordubeteko iraupena izango duela.

### Poteo Izarrak eta Ez Dakiu taldeak, gaur, futboleko final handian

Martitzenean finalerdiak jokatu eta gero, Ipintzako futbol txapelketako zortziko futboleko bi mailetak finalak eta hamaikako futboleko gaur jokatu dira.

Udako amateur txalpeketako lehen finala 18:30ean hasiko da. Bertan, Oxintxu eta Akabauak taldeek neurtuko dituzte indarrak, eta horren ondoren, zortziko futboleko nesken txanda iritisko da: Matadas Team eta Godofredo taldeak lehiatuko dira eskolako patioan.

Eta txapelketa bukatzeko, berriz, 19:30ean, gaurko finale-rako txartela lortu duten Poteo Izarrak eta Ez Dakiu taldeen txanda iritsiko da.

### Ekonomia parte hartzailea eta ekologia Equoren eskutik

Datorren asteko eguaztenean, Bergarako kultura etxean, 19:30ean, Equo alderdiak deituta mintzaldia egongo da. Bertan, ekologiarekin zerikusia duten *Kutsadura airean, urretan eta lurrean* gaia jorratzeaz gainera, *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoaz ere egingo dute berba.

Ekologiaz gain, gertuko eta ekonomia parte-hartzaileaz ere hitz egingo dute bertarantzaren direnek. Besteak beste, Fiareren eta halako banku etikoen jardura azaltzeaz gain, hemen hain arrotzak ez diren kooperatiba energetikoez ere hitz egingo da.

## EAJk Gobernuari eskatu dio udal lorategiei lehentasuna emateko

Arrizuriagako arazoak konpondu eta mantenuaz arduratzeko eskatu diote gobernu taldeari

I.G. | BERGARA

Bergarako EAJko udal taldeak Bilduko gobernuari eskatu dio "Arrizuriaga parkeko arazoei aurre egiteko eta bere mantenuaren ardura hartzeko, Olaso Fundazioko lorategien mantenua egin aurretik". Bidalitako oharrean diote "legealdi hasieran Arrizuriaga parkea eraberritzeko ekimena" erregistratu zutela udaletxean, "bergarar guztiak parkeaz gozatzeko aukera izan zezaten eta segurua izan zedin".

Eta jarraitu dute: "Salaketaren ostean, Udal Gobernuak zenbait aldaketa egin eta hainbat kartel jarri zituen jardura batzuk eta animaliei sarrera debekatuz". Horrekin batera, diote "parkeko zuhaitzen egoeraren inguruko diagnostia" egin behar izan zela, eta "haietako asko egoera txarrean" zeudela eta "arriskutsuak" zirela, "hori gutzia parkea erabiltzaileei ireki ostean".

### Eraberritze integrala

Hala eta guztiz ere, parkean egindako hobekuntzak nahiko ez direla uste du, ez dituztelako "parkearen oinarriko baldintzak eta segurtasuna bermatzen". Hori horrela, "parkeak eraberritze integrala" behar duela uste dute jeltzaleek, "arriskutsuak izan daitezkeen egoerak

ekidin eta parkeaz bere osotasunean gozatu ahal izateko".

Eta gehitu dute: "Haatik, Bilduk udal baliabideak Arrizuriaga parkean inbertitu baino, nahiago izan du Olaso lorategira bideratu hitzarmen bat sinatuz". Horren harira, udal talde jeltzaleak uste du "alkate andreak Olaso dorreko arduradunekin batera eskaintako eta zabalduetako erreportajeak paripe hutsak" direla eta helburu dutela "pribatua den fundazio bati mesede egitea bergarar eta turistaren eskura egongo den lorategia izango dela aitzakiatzat hartuta". Eta horren harira galdetzen dute: "Ba al du zentzurik turistentzat izango dela esan eta iraila arte ez irekitzeak?".

EAJko zinegotziek uste dute "lorategia herritarrei zabaltzea lorpen gisa" saldu nahi duela Bilduk, baina jeltzaleek adierazi dute hori ez dela horrela: "Telesforo de Monzonen testamentuak dio Olaso ondarea bergarar guztien gozameneko dela. Zergatik izan du Olaso Fundazioak eta fundazioko zuzendari den Jose Luis Elkorok ondare hau herritarrei itxia?". Eta gaineratu dute: "Ez da beharrezkoa hitzarmenik udaletxeak lorategia herritarrei zabaltzeko, borondate kontua da", adierazi dute.

### TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak  
Txitxizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 39 53

### BEHEKO TABERNA

Menestra  
eta untxia dira  
gure berezitasunak

ANGIOZAR  
Tel.: 943 76 55 74

**BERGARA**  
**MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77

**Kabutzia**

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

UGARTE  
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
www.txipi.com

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, beheka - BERGARA

# Iturriko uraren erabilera bultzatu nahi du Udalak herriko jatetxeetan

Pitxarrak banatuko ditu menua eskaintzen duten jatetxeetan, dohainik, hondakinak murrizteko asmoz

T. MADINA / I. GOITIA | OÑATI

Hondakin kopurua murrizte alde- ra, kanpaina bat jarri du martxan Oñatiko Udalak herriko ostalarien artean. *Edan iturriko ura* izeneko kanpaina, hain zuzen ere. Helburua da menuarekin ateratzen den ura plastikozko zein beirazko botiletan atera beharrean pitxarretan ateratzea.

## Hondakinak murriztea

"Ikusita ostalaritza munduan zenbat plastikozko botila erabiltzen diren, zenbat saihestu daitezkeen eta txorrotako ura kalitate onekoa dela, pitxarraren erabilera bultzatu nahi izan dugu", adierazi du Leire Egañak, Ingurumen zinegotziak. Horrela, bezeroak menuan sartzen den edaria aukeratzeko ura eskatzen badu, plastikozko edo beirazko botiletan atera partez, pitxarretan ateratzea da Oñatiko Udalak proposatzen diena herriko jatetxeei eta eguneko menua zerbitzatzen duten tabernei. Guztira, 30 establezimenduri. Helburua da sortzen den hondakin kopurua txikitzea. Hein batean, Udalak jarraitzen duen *zero zabor* filosofiaren baitan, birziklapenarekin eta bererabilpenarekin batera, zaborrik ez sortzea edo murriztea da lortu nahi dena. Neurri horretatik kanpo geratzen da barran zerbitzatzen den ura.

Ostalariei dagoeneko eman zaie kanpainaren berri gutun bidez, eta orain, hala gura dutenek hilabete bukaerara arte izango dute kanpainarekin bat egi-



Udaletik doainik banatuko den pitxarra. | OÑATIKO UDALA

teko aukera. Proposamena onartzen dutenei, irudian ikusten den moduko pitxarrak banatuko dizkie Udalak, doan. "450 pitxar eskatu ditugu. Kontuan izan ditugu zenbat jatetxe dauden eta bakoitzean zenbat jende sartzen den. Zehazki, lau pertsonako mahai bakoitzeko pitxar bat kalkulatu dugu".

## Ostalarien parte-hartzea

Dagoeneko bada kanpainan parte hartzera animatu den ostalaririk; adibidez, Urbia jatetxea. "Jantokian ur-botila pila bat erabiltzen dira, batez ere, asteburuan,

eta zabor asko sortzen da. Nik uste dut plastikoa dela gehien sortzen den hondakina, eta zabor gutxiago sortzeko modua dela uste dut", esan du Agurtzane Muxikak, Urbia tabernakoak. Ez du uste, gainera, ura iturrikoa izateak bezeroekin arazorik sortuko duenik. "Oñatin, kalitateari dagokionez, ur oso ona dugu eta ez dut uste alde handirik nabaritutako dutenik".

Egitasmoan parte hartu gura duten ostalariek bi aukera dituzte horretarako: udaletxera bertara joatea edo udaletxera telefonoz deitzea.



Ramon Irizar kaleko parkeak izango duen itxura berria. | OÑATIKO UDALA

## Ramon Irizar kaleko parkea berri egingo dute

Irailean hasiko dira lanak, eta bertan dagoen jolasgunea kenduko dute, besteak beste

I.G. | OÑATI

Ramon Irizar kalean dagoen parkea eraberritzeko erabakia hartu du Udal Gobernuak. Izan ere, haren egoera ez omen da oso ona. "Erabilera urria du plazak eta bere egoera eskasa da. Zati bat hondoratu ere egin zen, eta lan txiki batzuk egin behar izan ziren arriskua ekiditeko", esan du Mikel Biain alkateak.

## Itxura berria

Hainbat izango dira parkean egingo diren aldaketak; besteak beste: jolaslekua kendu, zoladura aldatu eta berdeguneak egokitu. Erabilera askotariko egurrezko plataforma bat ere ezarriko da. "Herrigune historikoaren ezaugarriak kontuan hartuta egingo dira lanak", argitu nahi izan du Biain alka-

teak. Bestalde, gaur egun parkean dauden zuhaitzak mantendu egingo direla zehaztu nahi izan du. Berriak ere landatuko dira.

Aurreikusten da irailean hasiko direla lanok eta azarorako amaituta egongo direla. Itziar Zelaia arkitektoak diseinatu du parke berria eta 120.345 euroko aurrekontua izango du (BEZA kanpo).

Bestalde, mugikortasun planaren baitan Ramon Irizar kaleko zirkulazioa moldatzea aurreikusten zen, oinezkoiei lehentasuna emateko asmoz. Alkateari horren inguruan galdetuta, esan du oraindik azterketa fasean dagoela gaia. Eta gaineratu du orain egingo diren lan horien baitan ez dela zirkulazioari dagokion inolako aldaketarik egingo.

## Gaur 20:30ean hasita, jaiak ospatuko dituzte aste bukaera osoan Madalena auzoan

Madalenaren jaietsierekin egingo diete jaiak, 20:30ean, eta gauean auzo-afaria egingo dute. Bihar izango dituzte meza (13:00), umeentzako jolasak (17:00), puzgarriak (18:00) eta dantzaldia Imuntzo eta Belokirekin lehenengo eta Dantzadi taldearekin gero. Domekan, meza (12:00), herri kirol erakustaldia (13:00) eta mus txapelketa (16:30). Autobusa egingo da hara joateko 23:00etatik 08:00etara.

## La Banda Del Abuelo taldearen kontzertua bihar eta etorkinekin afari-tertulia domekan gaztetxean

Bi ekitaldi antolatu dituzte asteburu honetarako Antixenako gaztetxean. Batetik, kontzertua eskainiko du La Banda Del Abuelo taldeak bihar, zapatua, 19:00etan. Antixenako parkean izango da. Bestetik, domekan, afari-tertulia egingo dute herrian bizi diren hainbat jatorritako etorkinekin, 20:30ean. Interesatuak izena eman behar dute aurretik gaztetxean bertan. Bestalde, eguaztenean, bertso saio musikatu egingo dute, 20:00etan.

## Moneta sozialaren proiektua azaltzeko bilerak egingo dituzte merkatari, ostalari eta gremioekin

Moneta sozialaren proiektua aurrera doa eta mahai teknikoak proposatutako eredu merkatari, ostalari eta gremioei azaltzeko bilerak egingo ditu Udalak. Honako hauek dira deialdiak: uztailak 22, uztailak 23, uztailak 28, uztailak 29 eta irailak 2. *Goiena. eus*-en kontsulta daiteke bakoitzari noiz dagokion joatea. Gainera, Udala telefonoz jarriko da harremanetan guztiekin. Bilerak udaletxean izango dira eta 45 minutu iraungo dute.



**Palestinari elkartasuna adierazi diote herritarrek**

Herritar talde batek deituta, elkarretaratzea egin zuten eguazten arratsaldean, Palestinan azken asteotan gertatzen ari dena salatuz. *Gaza bizirik. Genozidioari stop!* lelopean egin zuten agerraldia Foruen plazan. Bertan batutako herritarrek Israelen jarrera salatu nahi izan zuten elkarretaratzearekin, eta baita Palestinako herriarekiko elkartasuna adierazi ere.

# Ana Bolinaga: "Ziur gaude markak hautsiko ditugula"

Astelehena ezker atez ate jasotzen dituzte hondakinak herrian

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

"2008an eman ziren lehen pausoak ingurumen jasagarriaren alde Aretxabaletan, bosgarren edukiontzia jarri zenean. Baina horrek emandako emaitzak atez ateko hondakin sistemarekin alderatuta motz geratzen dira", jakinarazi zuen Ana Bolinaga alkateak atez atekoari ongietorria egiterakoan. Eta gaineratu: "Txalotzen ditugu aurreko hondakin bilketa sistemarekin gaika jasotzen zituzten herritarrak eta animatzen ditugu orain ere gaika jasotzera". Halaxe jarri zuten abian astelehenean atez ateko hondakin bilketa sistema. Eta gaineratu: "Ziur gaude, gainontzeko herri batzuetan legez, Aretxabaletan ere markak hautsiko ditugula, eztabaidak alde batera utziz, eta herriak bat eginik".

Eta halaxe, lehen egunetako bilketak "aparteko" arazo barik eta "esperotako erantzuna jasota" izan zirela jakinarazi zuen alkateak: "Izan ere, ohiturak apur bat aldatuta herritarrak gai gara erantzukizunez gaika hobeto jasotzeko etxean, eta, hala, gero gehiago birziklatzeko".



Udal Gobernuak kideak ongietorria egiten atez atekoari. | MAIALEN TORRES

## Larrialdi-gunea Markolen

Bilketa sistema berriaren gainera argibide guztiak jasotzen dituen aldizkaria banatu zuen martitzen Udalak, eta webgunean ([www.aretxabaleta.net](http://www.aretxabaleta.net)) ere eskuragarri dago. Hala ere, badakite lehen egunetan zalantzak izango dituztela herritarrek, eta horiek argitzeko Durana kalean dagoen Hondakin Informazio Bulegora jo dezakete.

Uztaila eta abuztua bitartean, bestalde, oportretan kanpora joan-

go dira asko eta asko. Joan aurretik, baina, hondakinak kendu gurako dituzte etxetik. Horretarako, larrialdi-gunea dago Markole auzoan. Lehen egunotan udaltzainei eskatu behar zaie giltza (bulego ordutegian) larrialdi-gune hori zabaltzeko eta hondakinak han dauden edukiontzitan botatzeko. Gero, telefono zenbaki bat jarriko dute deitzeko, eta han emandako kodearekin atea zabaltzeko ahal izango da, giltza eskatzen ibili beharrik gabe.



JOSE IGNAZIO ISASMENDI

## Oihan Beltza ezagutu dute Basotxokoek Alemanian

"Eskiatzaileek legez, tranpolinetik salto egin eta irribarretsu!", diote Alemanian ibili diren Basotxo erretiratuen elkarteko kideek, 32 guztira. Hinterzarten atera zuten argazkia, Oihan Beltzean, eta bertako mendirik garaienera, Feldberg mendira, igo ziren. Estrasburgo, Friburgo... ikusi dituzte, eta garagardo lantegi bat bisitatu. "Herri aurreratua da, baina ez dugu inon arrainik jan; hori bai, okela ederto gertatuta", esan dute bueltan.

## 'Txatarra' zirku ikuskizuna eguaztenean Malas Compañiasekin

Uztaileko eguaztenean kale antzerkiari eskaini dizkio Udalak, eta ikuskizun dotoreak izan dira herrian. Datorrenean, hilaren 23an, Malas Compañias antzerki eta zirku taldeak Txatarra eskainiko du (19:00); akrobaziak, objektuen manipulazioak eta umoreak bat egingo duten ikuskizun dibertigarria eta hunkigarria.

## Martitzenean esango diete neska-mutikoek agur udaleku irekiei

Igerilekuetara, Apotzagara, Larrinora, Galartzara gaua pasatzera... makinatxo bat irteera, ospakizun, jolas eta eskulan egin dituzte 5 eta 12 urte arteko neska-mutikoek, nahiz eta egun askotan eguraldia ez duten lagun izan. Martitzenean, hilak 22, esango diete agur udalekuei, azken jaialdia eginda, plazan.

## Aurkeztu dituzte galdeketa eskatzeko sinadurak

M.A. | ARETXABALETAKO

Bosgarren edukiontzia alderatuz astelehenean aurkeztu zituzten galdeketa eskatzeko sinadurak udaletxean. 900 sinadura pasatxo dira (galdeketa eskatzeko legeak ezarritakoa), baina askoz gehiago dituzte jasota: "Gainera, plataformakook jasotzen jarraituko dugu eta oraindik sinatu ez duten interesatuek jo dezatela guregan", jakinarazi du Nerea Etxabe kideak. Ildo horretatik eskerrak eman gura dizkiete orain arte sinatu duten guztiei.

Sinadurekin batera galdeketa eskatzen dute eskaera aurkeztu dute udaletxean. Eskaera hau egin diote alkateari: "Borondatezko edukiontzia sistema (bosgarrena) eta derrigorrezko atez atekoaren artean herritarren nahia zein den ezagutzeko herri kontsulta sustatuko duen udalbatzarra egitea eskatzen dugu". Erantzunaren zain geratu dira orain:

"Herri agintariek epe motzean herriari hitza emango diotela espero dugu", esan dute, eta "ezezkoa" jasoz gero mobilizazioekin jarraituko dutela iragarri. Bien bitartean, protesta gisa jarritako zabor poltsak ez kentzeko leiho eta balkoietatik eskatu diete herritarrei.

### "Gizalegez" jokatzeari

Atez ateko bilketa sistema abian da, baina atzera egiteko ez dela berandu uste dute: "Orain arteko inbertsioa ez da handia izan, mantentze gastuak ditu handiak sistema honek, eta beti egin daiteke atzera", diote.

Hala ere, atez atekoa martxo bitartean dagoen bitartean "zentsuz" jokatzeko eskatu dute: "Bosgarrenaren aldeko plataformatik gizalegez eta gainontzeko herritarrekin arduratsu jokatzeko eskatzen dizuegu, gure konpromisoa herritarren ongizatearekin eta ingurumenarekin da-eta".

## Gaurtik domeka iluntzera jai giroa izango da Portasol inguruan

M.A. | ARETXABALETAKO

Zapiak lepoan lotu eta txupina botata iritsiko da jai giroa gaur Portasolgo bazterretara. Buruhandien kalejirarekin hasiko dituzte jaiok (18:30) eta gau partean kontzertuak izango dira bi guntan: Markoleko zelaian (22:00) rock kontzertuak talde hauekin: Txerrikumeak, Galerna eta Gaupa-heroes. Eta Bizkaia kaleko aparkalekuan (22:30) trikitilariak: Laja II.a eta Narbaiza.

Bihar, kirolak ere izango du lekua: atletismo probak Loramendi kalean (11:30); eta gimnasia erritmikoa Araba ibilbidean (12:00). Umeei, gainera, gaztelu puzgarriak izango dituzte Loramendi kalean (12:00 eta 17:30). Eta arratsaldean (16:00) xake eta mus txapelketak jokatuko dituzte. Gauean musikaren txanda izango da: rock taldeak Markoleko zelaian, (22:00): Kalaña; ERM; eta WC. Eta erromeria giroa Gardoki-



Musikariak iaizko jaietan. | GOIENA

rekin Bizkaia kaleko aparkalekuan (22:30). Gauerdian suzko eruberak botako dituzte.

Domekan ere ez da faltako jai giroa: artisauen eta bigarren eskuko produktuen azoka Araba ibilbidean (11:30); paella lehiaketa Markoleko zelaian (11:30); eta Gorritiren animaliak zelaian bertan (18:00). Ondoren, emakume zaharrena eta aurtengo lehen jaioberria omenduko dituzte.

zenbaki   
aholkulariak-abokatuak

### • Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.  
- Penal: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.  
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.  
- Merkataritza: sozietateen eratzak, ordaingabeak, hartzekodun konkursoa.

• Laborala: erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazio espedienteak.  
• Fiskala: enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioak.  
• Kontabilitatea: pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETAKO • Tel.: 943 71 21 12  
[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)



# Sor Ambrosia izango dute gogoan etzi, Marinen

## Granada aldean behartsuen alde egindako lana gogorarazi dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Madalena jaiak ospatu dituzte asteburuan Marinen, eta etzi, domeka, eguerdian egingo duten mezan Sor Ambrosia izango dute gogoan. Bere bizitza gogoraziko dute elizkizunean, behartsuen alde egindako lana nabarmenduta. Baina nor zen, zehazki, Ambrosia Orobengoa Gallastegi?

Maringo Lukaran baserrian jaio zen, 1881eko uztailaren 1ean, eta elizate bereko Santa Maria Madalena parrokiaren bataiatua izan zen. Jorge zen aita, eta Leona ama. Aitaren gurasoak aramaiorak ziren; eta amaren alde, Domingo de Gallastegi Arantzabal Elgetakoa eta Teresa Uribe Agirregabiria Maringoa, Agarre baserriko ondorengoa.

Agarrekoak Lukaran baserriko ugazabak ziren; eta, hain zuzen, XVIII. edo XIX. mendean eraikitako baserri hartan jaio zen Sor Ambrosia. Bigarren mailako baserria zela uste da, eta ez zituzten urte asko eman han, Lukarango ondorengoak Agarrerara itzuli ziren eta. Egun, horma-hondarrak baino ez dira geratzen.




Sor Ambrosia Orobengoa. | ARTXIBODA


19 urte zituela, Mesedetako kongregazioan sartu zen Ambrosia; hain justu ere, 1900. urtean; lehenago, dena dela, Aretxabale-tako etxe batean jardun zuen, baserriko lanak egiten.

### Lojara, Granadara

Juan Nepomuceno Zegri apaizak sortu zuen Mesedetako kongregazioa, 1978an; txiro, gaixo eta marjinatuen alde lan egitea zuen helburu. Ordena hori hainbat elizbarrutitan hedatu zen, bere



Eskoriatzarraren heriotza-agiria. | GRANADO APEZPIKUTZA



Lojako garai hartako udalbatzaren akta. | LOJAKO UDALA

karisma zela eta. Horren harira, honako hau esaten zuen Zegrik berak: "Lana ez da bukatuko min bakarra sendatu gabe gelditzen bada, ezbehar bakarra kontsolatu gabe edo minutako bihotzetan esperantza tantaka isuri gabe". Giro horretan sartu zen Sor Ambrosia, eta 1913an, Granadako Lojako ospitalera bidali zuten.

Ospitale zibil hori, gaur egun Mesedetako Ama nagusien egoitza, San Frantzisko auzoan dago. Garai hartan, behartsuak ziren auzo hartako biztanleak; orduan ez zegoen gizarte segurantzarik eta ez zuten dirurik osasun arloko gastuak eta laguntza-zerbitzuak ordaintzeko. Hortaz, beharrak ase nahian, Mesedetako ahizpenganen jotzen zuten, arreta eta maitasuna jasotzeko. Moja guztien artean, Sor Ambrosia berezitu zen. Eskoriatzarra hil zenetik 79 urte pasa badira ere, 1935eko otsailaren 1ean hil zen Lojako ospitalean, 54 urte zituela, gogoan dute oraindik bizirik daudenek.

### Beti laguntzeko gertu

"Santa" moduan aurkezten dute, beti laguntzeko gertu zegoen emakumea, eta egindako mesedeak kontatzen hasten dira. Hil zenean bere gauzak ere eskatu zituzten askok, gordetzeko. Granadako San Gabriel parrokiak heriotza-agiriak ere "jainkozale eredugarritzat" jotzen du, eta behartsuen

alde egindako lanak Lojan "idolo" izatea eragin zuela dio agiriak, "santa" bezala beneratua izan zela. Haren hiletan, herri guztia, Udaleko eta elizako ordezkariak barne, batu zela jasotzen da.

Garai hartako *El ideal* egunkarian ere aipatu zen Sor Ambrosiaren heriotza; eta Lojako udalbatzak ezohiko osoko bilkura egin

zuen, hori dela eta. Udalbatza haren hileta ordaintzeko gertu azaldu zen, baina San Gabriel parrokiaren aurreratu zen. Azkenean, eliza horretako abadeen gelan lurperatu zuten, eta plaka eta guzti jarri zuten.

Aitor Antxia aretxabaletarra arduratu da Sor Ambrosiari buruzko bizitza biltzeaz.

## Kanpai festa, auzo afaria eta dantzaldia, Marin elizateko jaietan



Arientzakoak Marinen. | GOIENA

Bihar, zapatua, emango diete hasiera Maringo festei, 18:00etan. Etxafuegoen jaurtiketarekin batera, kanpai festa izango da Arientzako kanpai-jotzaile eskolako eskutik. Ilunkeran, 21:00etan, auzo afaria egingo dute; 40 bat lagun elkartuko dira mahaiaren bueltan arrain-zopa, entsaladilla, solomilloa eta etxean egindako tarta dastatzeko. Hori dena jaisteko, 23:00etan, Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin dantza egiteko aukera izango da. Eguna behar bezala amaitzeko, txokolate beroa banatuko dute. Domekan, meza dago 12:00etan, eta hori amaitzean, luntxa egingo dute.

## Udako argazki lehiaketa deitu dute hirugarrenez

Irailaren 19ra arte aurkez daitezke irudiak, eta urriaren 8an irabazleak jakinaraziko dira



lazio irabazleak, saria jaso ondoren. | IBARRAUNDI MUSEOA

M.B. | ESKORIATZA

Udako argazki lehiaketa antolatu du hirugarrenez Ibarraundi museoak. Irudiak digitalizatuta bidali beharko dira irailaren 19a baino lehen [ibarraundi@eskoriatza.net](mailto:ibarraundi@eskoriatza.net) posta elektronikora eta parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bi argazki aurkez ditzake.

Jasotako guztietatik, Udalak 30 aukeratuko ditu, eta irudi horiekin erakusketa egingo da museoan, irailaren 29tik urriaren 3ra bitartean. Irabazlea aukeratzeko hiru boto izango dira kontuan: bata, Udal Garapen batzordeak emango du; bestea, herritarrek Ibarraundiko erakusketan emandakoa; eta hirugarrenik, Facebooken edo Udaleko webgurenean bidez aukeratuko da.

Urriaren 8an jakinaraziko dira irabazleak. Hiru sari daude, 50 axtrokikoa bakoitza.

## Anje Duhaldek kontzertu akustikoa eskainiko du gaur gauean Azkoaga Enea hotelean

Astebeteko geldiuonearen ostean, indartsu dator ostera Aitzorrotz kultura elkarteak gertatutako Errekan Gora jaialdia. Izan ere, gaur, egubakoitza, Anje Duhalde musikari ezagunaren txanda izango da. Bere ibilbide luzearen errepaso egingo du Arrangoitzekoak, emanaldi akustikoa eginda; horren harira, gogorazi beharra dago barkaka hamaika disko argitaratu dituela dagoneko. Bada, Azkoaga Enea hotelean izango da oraingo asteko kontzertua, 22:30ean.

## Erretiratuek izena eman dezakete abuztuaren 13an Donostiako su artifizialak ikusteko irteerarako

Olaraz erretiratuen elkarteak irteera antolatu du abuzturako. Hain justu, Donostiako su artifizialak ikusteko aukera izango dute erretiratuek abuztuaren 13an; asmoa da herritik arratsaldeko bostetan irtetea eta suak ikusi ostean Eskoriatzara bueltatzea. Interesa dutenek elkartearen bulegotik pasatu behar dute, betiko moduan, martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 12:30era bitartean. Izena ematearekin batera, hamabost euro ordaindu behar dira.



## Herriko kirol instalazioetan erreserba egin daiteke

Antzuolako kirol instalazioak erabili ahal izateko erreserba egiteko aukera dute herritarrek. Uztailaren 22ra arte dute interesatuek. Modu horretan, 2014ko irail hasieratik 2015eko uztail bukaera bitartean, denboraldi horretan, eskolako patioa, frontoia eta Eztala futbol zelaia erabiltzeko aukera dago. Pilotalekuari dagokionez, martitzenetan eta eguenetan ezin izango da erreserbarik egin, Olalde pilota taldeak hartuta baitu egun horietan entrenamenduak egiteko. Erreserba egiteko, bidali mezua [kultura@antzuola.net](mailto:kultura@antzuola.net) helbidera. Uztaileen jakinaraziko da emaitza.

## Gaztetxeak itxura berria eta freskoa aurkeztu du sarean

Herriko jaiekin batera, Antzuolako gaztetxeak itxura berria aurkeztu du Interneten. Hala, <http://antzuolakogaztetxea.info> atariari diseinu freskoagoa eman diote. Albisteez eta iruzkinez gain, ikus-entzunezko atala, hau da, multimedia atala ere badakar. Bideoak eta argazkiak ikusteko aukera ere bada bertan. Eta noski, egungo garaietara egokituta datorrenez, Facebook, Twitter eta Google Plus zerbitzuetara sarrera zuzena dago bertan. Herriko jaietan bete-betean murgilduta daude antzuolarrek, eta bertan emango dute eguneguz egun gaztetxeak antolatutako ekintzen berri ere.



Olatz Arrieta antzuolarra Herriko Plazan. | MAIDER ARREGI

# Olatz Arrieta: "Bizitza erraztu didate Antzuolan"

## Arrietak esklerosi anizkoitza dauka eta herrian barrena mugitzeko hiru gurgildun motorrean ibili beharra dauka

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Olatz Arrieta antzuolarrek 44 urte ditu eta bi semeren ama da, 7 eta 10 urtekoak. Esklerosi anizkoitza dauka, progresiboa eta tratamendurik ez daukana. Orain dela hamar urte egin zioten gaitzaren diagnostika Arrietari. "Lehen semea jaio aurretik detektatu zidaten esklerosia. Zaila izan da gaitza eta amatasuna bat-egitea,

baina laguntzari esker lortu dut", azaldu du.

Azken urteetan, baina, bere bizitza maila asko hobetu dela kontatu du, Udalak egindako zenbait lan esker. "Lehen, toki guztietara joateko laguntza behar nuen, eta orain ez. Autonomia, independentzia irabazi dut Udalak egindako lanei esker". Azken hiru urteetan hainbat lan egin

dira herrian Arrietaren bizitza maila eta mugikortasuna hobetzeko. "Herri osoan lasai ibili ahal izateko espaloiak egokitu dituzte; Torresoroako komunera bakarrik eta laguntza gabe joan nadin, atea moldatu du Udalak. Nire auzoan ere egin dituzte hainbat lan zenbait tokitatik jaitsi eta igotzeko, nire kasa. Banketxeetara ere sar naiteke orain inongo eragozpenik

gabe. Herrian gauza asko egin dituzte, nahiz eta oraindik egitekorik badagoen".

Bizitza maila asko hobetu zaiola dio: "Ni orain komunera bakarrik joan naiteke, ateak bakarrik zabal ditzaket, eta horrek asko laguntzen dit. Nire independentzia handiagoa da. Udalari, berriro eskerrak, asko lagundu dit eta. Bene-benetan, eskerrik asko".

Esklerosia hiru herritarrek dute gaur egun Antzuolan. "Ni naiz ahotsa eta aurpegia eman duena eskariak aurrera ateratzeko, baina ni naizelako dependentzia ez duen bakarra; izan ere, besteek dependentzia handiagoa dute; horregatik, nik egin ditut urratsak gure bizitza maila hobetzeko", gaineratu du.

Eskaria orain dela lau urte egin zuen, Pilar Etxaniz zinegotziak lagunduta. "Idatzi bat prestatzen lagundu zidan orduan Udaleko ordezkari zen Pilar Etxanizek. Horrez gain, eskolan ere lagundu zidan zenbait egokitzapen egiten. Esaterako, igogailua jarri dute herriko eskolan. Hala, nire semeei laguntzera joan naiteke eskolara. Bizitza erraztu didate, eta asko da hori!".

### Laguntzeko beti prest

Antzuolarrek beti laguntzeko prest daudela azpimarratu du. "Zortea daukat Antzuolan bizi izateaz; izan ere, laguntza eskatu eta bat ez, ahal duten guztiak etortzen dira niri laguntza ematera. Beste hiri handi batean ez litzatekeela horrela izango iruditzen zait", gaineratu du.

Erronka berrien artean, ambulatarioko ate "pisutsua" egokitzea du orain Arrietak. "Guretzako ez ezik, adineko jendearendako edota haur-kotxea daramatenen dako ez da batera eroso ate hori; ezin zabaldu ibiltzen dira".

## Zenbait udal zerbitzuek aldaketak izango dituzte

Hondakinak ateratzeko ordutegia berezia izango da antzuolarrendako, jaiak direla eta

M.A. | ANTZUOLA

Herriko jaiek eraginda, zenbait zerbitzuren aldaketak kontuan hartu beharko dituzte herritarrek, gaurtik domekara bitartean, hain justu.

Aldaketa nagusia hondakinak biltzeko zerbitzuak izango du. Hala, gaur, uztailak 18, eguerdian, ontzi arinak ateratzeko eguna dute antzuolarrek. Eguerdiko hamabietatik ordu bietara bitartean atera ahal izango dituzte ontzi arinak.

Bihar, zapatua, aldiz, organikoak biltzeko zerbitzua izango da, 12:00etatik 14:00etara.

Domekan, hilaren 20an, aldiz, errefusa bilduko dute ordutegi berarekin. Gogoratu behar da pixoihalak eta konpresak ateratzeko aukera izango dela, ohi bezala, egunerok.

### Ekarpengunea

Herrian bi ekarpen-gune jarriko dira. Hain zuzen, San Josepen, lehen ekarpen gunean, edukiontzi bereziak jarriko dira. DYA parean zerbitzu bera jarriko da erabiltzaileendako.

### Sagastin barrakak

Urtero moduan, aurten ere Sagasti auzoko errepidean barrakak jarriko dituzte; horregatik, errepide tarte hori itxita egongo da autoendako. Bertan aparatzeko aukerarik ere ez da egongo jaietan.

Autobus geltokia, ordea, Sagastin mantenduko da. *Pesa.net* helbidean daude autobus zerbitzuen ordutegiak. Pesatik jakinarazi dute gaur (barikua) eta bihar autobus zerbitzu bereziak izango direla.



Domekan, bederatzigarren larrain-dantza egingo dute herritarrek. | GOIENA

## Tortilla lehiaketa eta herri bazkaria gaur protagonista

Inoizko Mairuaren Alarde parte-hartzaileena egingo da bihar herriko kaleetan barrena

M.A. | ANTZUOLA

Atzo eman zitzaien hasiera herriko jai nagusiei. Hala ere, hasi besterik ez da egin, gaurtik aste bukaerara bitartean badago eta zerekin gozatu herrian.

Goizean, esaterako, patata-tortilla lehiaketa egingo da. Eta

umeendako jolasparkea jarriko dute egun osoan. Eguerdian, berriz, herri bazkaria egingo dute Kalebarren antzuolarrek. Bazkalostean, poneyak eta zezentxoak izango dira. Gauean, berriz, azken urteetan bezala, profesional mailako pilota partidua

ikusteko aukera izango da: Titi-nek eta Rezustak Mendizabalen eta Zabaletaren aurka jokatu dute. Hala, erretiroa hartuko duen urtean, Titin ikusteko aukera izango da Antzuolan. Gau giroa mariatxiek alaituko dute plazan. Zurrategin, aldiz, Zurraia, Poli-Ticks eta Joxpa taldeen emanaldiak, 23:00etan.

Zapatu eguerdian, Bergaroko Bandaren kontzertua izango da. 19:00etan, berriz, Mairuaren Alardea egingo da. Alardearen elkarteko kideek herritarren parte-hartzea handia izango dela azpimarratu dute. Gauean, kontzertuak txosnagunean: Minority Of One, Zopilotes eta Zesuma.

Domekan, herri bazkaria egingo dute. Ondoren, ur-jolasak egingo dira gaztetxeak antolatuta. 20:00etan, bederatzigarren larrain-dantza egingo dute herriko bikoteek dultzainen doinuekin lagunduta Herriko Plazan.

Aurtengo jaiak bukatuta emanez, gauerdian igoko dute hon-tza. Ondoren, Ezten Giro taldearekin dantzaldia plazan. Bukatzeko, zezensuzkoa izango da plazan.



Iturrizuri kalean jarritako garabia zubi berriaren zati bat mugitzen, zegokion lekuan jartzeko. | MADERGIA

# Iturrizuri eta Matxain lotuta, zubi berriari esker

Martitzenean muntatu zuten garabi handi batekin; gaurko zabalik egongo da

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Martitzenean jarri zuten Iturrizuri eta Matxain kaleak lotzeko zubi berria. Goizeko lehen orduan iritsi zen garabia eta lanak lehenbailehen hastea zen asmoa -Iturrizuri kaleko errepidea, herrirako sarreretako bat dena, itxita zegoelako-. Hala ere, garabiarendako kontrapisu bat zekarren kamioi batek matxura izan zuen Aramaiora bidean eta horrek zubiaren muntaketa atzeratu zuen. Antsoingo (Nafarroa)



Zubi berriaren oinarria, muntatuta. | MADERGIA

Madergia enpresakoez zubi zatika muntatu zuten: "Zubia dagoen lekutik muntatu behar den lekura distantzia oso handia dagoenez, oinarriko habeak jarri dira lehenengo eta gero gainerako zatiak", adierazi du Madergia enpresako ingeniari Diego Nuñezek. Nuñezek arabera, "oso ezohiko" da halako garabi handi bat mugitzea horren motza izan behar duen muntaketa baterako.

**Egurra, "arina eta iraunkorra"**

Egurrezkoa da zubi, 26 metroko luzera du eta pinu-egur laminatua du oinarri. Tratamendu berezia eman diote, kolorea mantendu eta gehiago iraun dezan. Martitzenean zubiaren egitura muntatu zuten eta eguaztenean amaitu zituzten muntaketa lanak. Udalak aditzera eman du gaurko zabalik egongo dela.

Egurrezko zubi gehienak, urteek aurrera egin ahala, irristakorrak izaten dira: "Egurra oso arina eta iraunkorra da. Kasu honetan, gainera, ia aukera bakarra zen, oso luzea delako eta urrutitik mugitu behar zelako. Egurak araudia betetzen du, eta akaberran ez da lixatu, hobeto hel dezan. Hala ere, urteekin propietateak galduko ditu, seguruenik...", dio Nuñezek. Obrak 30.000 bat euroko inbertsioa ekarri dio Udalari.

Argazki gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



SAN MARTIN ESKOLA

## Ortua jartzeko auzolana eskolan

Uztailaren 9an eta 10ean, urtero egiten diren auzolanerako elkartu ziren eskolako gurasoak eta irakasleak. Eskolaren atzealdea garbitu zuten, urtetan erabili ez dena: "Asmoa da ortu moduan erabiltzea. Udalaren laguntza lortuz gero, zati bat estaliko genuke, euria egiten duenerako; landatzen duguna neguan ez izozteko ere balioko luke".

## Ondare Babeseko arkeologoek laugarren urtez ekin diete Murugaingo indusketei

J.B. | ARAMAIO

Burdin Aroko harrisia eta 36ko gerrako aztarnak azalatzeko helburu duen Murugaingo proiektuak aurrera segitzen du. Aurtengoa laugarren urtea izango da: "2011 ezkerko proiektua asko hazi da. Arabako Arkeologia Institutuaren diru laguntzarekin hasi ginen bi indusketa eremu handi irekitzen

eta aramaioarren laguntza eta auzolan grinari esker proiektuak dimentsio publikoagoa hartu zuen", adierazi du indusketen zuzendari Etor Telleriak.

**Auzolanerako deia biharko**

Auzolanerako lehen deia biharko egin dute, eta hilaren 23an eta 26an ere egingo dira; kanpaina hilaren 31n amaituko da.

## Zuiako Koadrilako 350 haur batu zituen atzoko Euskararen Egunak

J.B. | ARAMAIO

Zuiako Koadrilako herrietan udalekuean parte hartzen ari diren haur guztiak Aramaion izan ziren atzo Euskararen Eguna ospatzen. 350 ume inguru elkartu ziren askotariko ekintzez gozatzeko: munduko hainbat herrialdeetako galderekin osatutako pista-jolasa, puzgarriak, Euskaraokea, dantzaldia... Bero itogarria izan arren, ederto joan zen eguna: "Umeak ondo ari dira pasatzen, ekintzetan parte hartzen", adierazi du Zuiako Euskara teknikari Manex Agirrek.

**Helburu bikoitza**

Eskualde mailako ekintza da eta urtero herri ezberdin batean

egiten da. Helburu bikoitza du Euskararen Egunak, Agirrek zehaztu duenez: "Eskualdeko haurrak elkar ezagutzeko egun aproposa da, baina helburu garrantzitsuena da haurrek gaurko egunean euskaraz egin behar dutela barneratzea. Aramaioko ume gehienek modu naturalean egiten dute hori, baina eskualdeko beste herrietako haurren artean errealitatea bestelakoa da". Azken helburu hori "gutxi" lortzen ari direla uste du Euskara teknikariak eta horretarako begiraleen laguntza "ezinbestekoa" dela dio.

Aramaioko udalekuak datoren martitzenean amaituko dira, uztailak 22.



Pista jolasa egin zuten parkean, askotariko galderekin. | ZUIAKO KOADRILA

## NIRE USTEZ

ANDER ELORTONDO



## Belaunaldi ardurak

**A**rdurak eta erantzukizunak banakoarenak direla agerikoa da. Baina gu animalia sozialak gara. Ez sinistu beste animalien gainetik gaude, gure espeziea akabatzen dugunean beste batzuek iraungo dute.

Animalia sozialak nioen eta arrazionalak baino gehiago sailkatzaileak gara; euskal esaerak dio: *Izenik ez duena ez omen da*. Belaunaldiei ere izena jartzen diegu: X belaunaldia, ni-ni belaunaldia...

Nire belaunaldia baino txarragorik ote? Aurrekoek gure eskubideengatik borrokatu zuten, ikastolak sortu, enpresak, euskalgintza, izaera guztietako elkarteak: gastronomikoak, mendizaleenak... Hezkuntza eman ziguten, hobeak izan gintzen aukerak eman. Baina hutsegiteak, berdin zait norenak, nabarmenak izan dira daukaguna izateko. Kooperatibak krisian, eta ez nabil ekonomiaz bakarrik. Era guztietako elkarteetako zuzendaritzak erreleborik gabe.

Inoiz baino komunikazio eta elkartzeko tresna gehiagorekin, inoiz baino isolatuagoak. Neoliberalismoa bere botere itzelaz aurreko belaunaldiko lorpen denak suntsitzen.

Gaur egungo gazteek RPG-tik irten eta benetako bizitzan zerbait egin beharko dute neoliberalismori men eginez baldintza kaskarrean bizi nahi ez badute. Ni ez naiz inor zer egin behar duten esateko, baina guk baino hobeto egin beharko dute.

## "Komunikaziorako tresna gehiago, baina inoiz baino isolatuagoak"

## Lizaso eta Mendiluze gaur Arexolan, Santa Marina jaien barruan

Gaur eta bihar Santa Marina jaiak ospatuko dituzte Arexola auzoan. Auzotarrek egitarau zabala prestatu dute eta ekintza erakargarriena bat izango da gaur Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolari ezagunek girotuko duten bertso afaria. Auzoko elkarteetan izango da bertso saioa, iluntzean.

## ELGETA

# Ur-putzuek hartu dute aurtengo uztailean ere bolatokiko kantxa

Bits-festa ere izan dute neska-mutikoen; atzo, eguna, ibili ziren apar artean

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Klasiko bihurtu da Elgetan: neska-mutikoendako ur-putzuak uztailean.

Lehenengo hamabostaldia, egia esan, ez du aukera handirik eman; euria eta eguraldi eskasa izan da, orokorrean. Baina arduradunak eguraldi iragarpenari begira egon dira, eta lauzpabost egunerako eguraldi ona eman dutenean, berehala ipini dituzte ur-putzuak.

Martitzenean iragarri eta eguazten goizerako prest zeuden igerileku handia eta bi igerileku txikiak bolatokiko kantxan. Udalekuetako neska-mutikoak izan ziren lehenak ur-putzuak erabiltzen. Arratsaldean, berriz, nahi zuen orok izan zuen bainu bat hartzeko aukera.

## Umeak pozik

Haurrek eta gaztetxoek gozaten dute gehien ur-putzuekin. "Asko

gustatzen zaizkigu. Egun gehiagotan egon beharko lukete ipinita", zioen batek. Hondartzarako moduan prestatzen dira ur-putzuetarako: bainujantzia, eguzkitarako krema, toalla, jokoren bat... Aspertutakoan, ur-putzuen inguruan etzaten dira umeak,

sikatzeko, eta kantxa porlanezko hondartzara bihurtzen da. Eguraldia lagun, gaur arratsaldean ere erabilgarri egongo dira igerilekuak. Sorosle bat egoten da ur-putzuak zabalik dauden bitartean, baina gurasoen ardura da nork bere umea zaintzea.



Neska-mutikoak, igerileku handian, pozik. | L.Z.



Toalla kantxan zabaldu eta eguzkitan jolasten. | L.Z.



Urpean igeri egiteko prest. | L.Z.

## OHARRAK

### 'ONTZIRATU ZAITEZ'

Ekaineko zenbaki sarituak honako hauek dira: Goikoetxe harategia, 1.595; Amagoia arrandegia, 3.699; Ugari denda: 356; eta Erdiko denda: 1.669.

### KZGUNEAN

Dinamizatzailea martitzenean, hilak 22, izango da kultura etxeko KZgunean, 09:00etatik 13:00etara.

### MENDI IRTEERA BIHAR

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta, Zarautz-Pagoeta-Orio ibilbidea egingo dute bihar, zapatua, Elgetatik 08:00etan abiatuta.

### INTXORTAKO LEHOIEN ORGA

Azkenean, agertu da irabazlea. Pello Alberdi elgetarrak eraman du Intxortako Lehoiek jaietan zozketatutako orga.

## Eguaztenean, 19:00etan, beldurrezko ipuinak Udal Liburutegian

*Beldurraren ordua* antolatu dute eguaztenerako, hilak 23, liburutegian. Gaztetxoendako saioa da, eta bizpahiru boluntariok gidatuko dute. Beldurrezko ipuin, pasadizo eta kontaketa saioa izango da. Okasiorako, gainera, liburutegia egokitu eta girotuko dute; kandelak, kontaketaekin lotutako elementuak...

## LEINTZ GATZAGA

# Gaur inauguratuko dute udalerriko araztegi berria

Diputazioko, Udaleko eta Uren Partzuergoko ordezkariak gonbidatu dituzte ekitaldira

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gaur, egubakoitza, 11:00etan, Gatzagako udaletxean elkartuko dira herriko saneamendu sare berria inauguratzera datozen erakundeetako ordezkariak. Han-

dik araztegi berrirako bidea egin, eta "ekitaldi xume" batekin inauguratuko dute instalazioa.

Parte-hartzaileen artean izango dira Ainhoa Iraola, Diputazioko Ingurumen eta Obra Hidrau-

likoen Saileko zuzendaria; Eneko Etxeberria, Ur Kontsorzioko presidentea; eta Eugenio Otsoa, Gatzagako alkatea. Hiru ordezkariak azpiegitura berriaren gainean jardungo dute eta teknikari batek araztegiaren funtzionamenduaren gaineko xehetasunak emango ditu.

## Milioi erdi euro inguru

Bi ekipamendu eraiki dituzte saneamendu sare berrian: 300 metroko kolektorea (ur-zikinak batu eta araztegiara eramateko)

eta hondakin uren araztegia bera. Iaz abenduan hasi zituzten obrak, eta joan den ekainean bukatu. 500.000 euro inguru inbertitu dituzte lan horretan erdi bana Gipuzkoako Diputazioak eta Ur Kontsorziokoak.

Araztegia eraiki ostean, herri-guneko ur zikinak garbituko ditu Deba ibaira bota aurretik. Dagoeneko abian dago arazketa prozesua. Aurrerantzean, Gipuzkoako Ur Kontsorzioren esku geratuko da araztegiaren ustiapena eta mantenua.

## LEINTZ GATZAGA

## Urari eta zaborrari dagozkien zergak ordaintzeko epea

Zabaldu dituzte urari eta zaborrari dagozkien zergak ordaintzeko borondatezko epeak. Urari dagokionez, irailaren 14ra bitartean ordain daiteke. Zaborraren kasuan, berriz, abuztuaren 31ra arte izango da borondatezko epe hori. Epeok pasatu ostean, gainkarguarekin kobratuko dituzte zergak.



San Roke eguneko bazkaria, iaz. | L.Z.

# Santixauak eta San Roke jaiak gero eta gertuago

L.Z. | ELGETA

San Roke kaleko auzotarrak hasita daude jaiak antolatzen. Patroiaren eguna abuztuaren 16a da. Urtero moduan, lehenengo eta behin, jaietarako dirua ateratzeko zozketa egin dute.

Hala, zenbaki sarituak dira 325, 652, 885, 1.100, 1.120, eta 1.310. Maialde landetxean bi lagunendako otordua eta herriko komertzioetan erabiltzeko 40 euroko bonu-txartelak jasoko dituzte sarituek. Komertzioak dira: Goikoetxe harategia, Amagoia arrandegia, Elena Elkorro, Ugari denda eta Haizea taberna. Ordezko zenbakiei dagokienez, honako hauek dira: 1.062, 1.082, 334, 1.205, 1.329, eta 513.

## Santixauak, Goimendin

Azula-Goimendi auzoan, berriz, gertu dituzte Santixau jaiak. Hilaren 25ean, barikua, ospatuko dituzte. Meza esango dute 11:00etan Azurtzako Santiago ermitan, eta ondoren urteroko soka-dantza eskainiko dute Kezka dantza taldeko kideek. Hortik aurrera, egun osoko egitaraua gertatu dute. Bertso-lariak Anjel Mari Peñagarikano eta Jexux Mari Irazu izango dira. Trikitilariak, berriz, Jon Ostolaza eta Unai Andonegi.

Umeendako jokoak 13:00etan egingo dituzte eta herri kirolen erakustaldia 16:00etan. Aizkorekin Eneko Otaño eta Aratz Mugertza ariko dira. Harria jasotzen, berriz, Izeta III.a.



E.S.

## Behiak solte... herriko plazan

Orain dela egun batzuk behiak izan dira albiste herrian. Zegoen belarditik atera eta herriko plazan agertu zen bat aurreko bariku iluntzean —goiko irudian ikusgai—. Hurrengo egunsentian beste bi ibili ziren erdiguneko kaleetan gora eta behera. Anekdotak hutsean gelditu da kontua, baina komentatua izan da herritarren artean.



Malen Ruiz de Azuaren salto baten argazki-seriea, astelehenean egindako entrenamendu saioan, Mojategin. | JAGOBA DOMINGO

## ATLETISMOA

# Munduko onenekin lehiatzera

- Malen Ruiz de Azua bihar abiatuko da AEBetara, junior mailako munduko txapelketara
- Uztailaren 22an izango du kanporaketa fasea; hilaren 24ko finalean egotea amesten du

XABIER URZELAI | ARRASATE

Astelehena. Astebete baino gutxiago geratzen da Malen Ruiz de Azuak (Arrasate, 1995) AEBetarako bidea hartzeko, Eugene-n (Oregon) egingo duten munduko txapelketan lehiatzeko. Hainbat selekzio-tako ordezkariak dagoeneko han daude, ordutegi berri-egokitzen, hango pistetan entrenatzen, gauzak behar den moduan egiten. Arrasateko atleta, oster, Mojategin dabil berotze ariketak egiten, Maialen Axpe lagun duela [Bedoñakoa Espainiako txapelketa absolutuan izango da asteburuan], Jonathan Perez entrenatzailearen begiradapean.

Azken astearen aurrean dago Ruiz de Azua, baina ez da aste erabakigarria, etxeko lanak dagoeneko eginda daudelako: "Salto batzuk egiteko aprobetxatuko dugu astea; mantentze-lana da, gehienbat". Eta zapatuan abiatuko da Madrilera: "Ea pertikekin ez dugun arazorik izaten, hegazkin batzuetan ez dira-eta sartzen. Nahiko buruhauste ematen du horrek; iazko Europako txapelketan arazo batzuk izan nituen, baina, azkenean, hegazkinez eraman nituen. Baina Maialenek, esaterako, aurten arazo handiagoak izan ditu. Marsellan jokatu zituzten Mediterraneoko Jokoak, eta pertikak eraman ezinka ibili zen. Azkenean, beste atleta batek erabili behar izan zituen. Ea oraingoan ez dugun arazorik



Malen Ruiz de Azua. | JDOMINGO

izaten; Madrilera guk eraman beharko ditugu, baina handik Chicagora eramateaz Federazio-koak arduratuko dira".

### Iritsi, eta lehiatzera

Arrasateko atletak bihar, zapatua, ekingo dio bidaiari, Madrilera, eta astelehenean iritsiko da Eugene-ra. *Jet-lag* edo ordu aldaketa gainditu barik, martitzenean izango du kanporaketa erabakigarria. "Hor ere aurrekontuak eta aurrekontuak daude...", dio, irribarrez, haserre handirik erakutsi barik.

Ondo berotu ostean hasi dira arratsaldeko lehenengo saltoak

egiten, Ruiz de Azua lehenengo, Axpe gero. Eta entrenatzailea uneoro zuzenketa txikiak egiten dabil. Bitartean, Jonathan Perez iritzia eskatu diogu, haren *ikasleetako* batek egin dezakeen txapelketaren gainean: "Halako hitzordu handietan Malen urduri jartzen da, eta ez du daukan onena ematen. Aldiz, edozein entrenamendutan Espainiako txapelketa erraz irabazteko moduko saltoak egiten ditu. Badirudi oraingoan lasai hartu duela, sari moduko bat da AEBetan egotea; ea horrek presioa kentzen laguntzen dion eta pertikarekin benetakako Malen ikus dezakegun".

### Lau metro buruan

Iaz Europako txapelketan izan zen Ruiz de Azua, Italian: "Nahiko pozik itzuli nintzen handik, baina ez nuen aparteko markarik egin (3,80)". Eugene-n, berriz, sinatuko luke 4 metroko saltoa egitea [4,02 izan da denboraldiko markarik onena]. Eta, hala ere, marka horrekin ez litzateke finalean sartuko: "Gainontzeko neskek oso egun txarra izan beharko lukete marka horrekin finalean sartzeko. Nik uste dut, gutxienez, 4,05eko saltoa beharko dela finalean egoteko".

Horrek esan nahi du gaitza izango dela Espainiako txapelketan finalean ikustea: "Hemen badirudi 4 metroko saltoa egitea asko dela, baina kanpoan edonork egiten ditu 4 metro. Irabazleak 4,30 metro inguru egingo ditu, seguru". Hala, hobekuntzak zentimetroz zentimetro neurtzen diren modalitate horretan, 30 zentimetroko aldea handia da.

### Motibatuta, gogotsu

Onenekin egoteko aukera gutxi dituela jakinda ere, Super Amara taldeko atleta motibatuta doa AEBetara: "Bai, gogotsu noa. Gainera, azkeneko txapelketetan gustura ibili naiz; nire marka hobetu ez badut ere, emaitza politak lortu ditut eta horrek beti laguntzen du".

Arrasatekoak, baina, 4,02ko saltoa egin zuen duela hiru aste denboraldiko marka-, baina Castellon ezin izan zuen marka hori gainditu: "Halako txapelketa batean lehenengo postuan sailkatzea eta, gainera, norberaren marka ontzea gauza handia da. Suposatzen da urte osoko prestaketa bideratu dugula uztailan indartsu egoteko, eta salto onenak orain egin ditzakegula. Baina txapelketa batean onena ematea ez da erraza izaten. Ez nuen halakorik lortu, baina nahiko pozik geratu nintzen".

### Ondoren, merezitako oporrak

Urte osoa txapelketa hori prestatzen ibili ostean, Eugene-tik bueltan atleta arrasatearrak oporrak hartuko ditu: "Orainoz, ez dut aparteko planik. Lagunek uztailan egiten dituzte planak, eta ni entrenatzen eta txapelketetan ibili naiz. Atsedean hartzeko aprobetxatuko dut, baina kirola gustuko dut; horrenbestez...".

### ESANAK

**"Ez dut marka ondu, baina gustura geratu naiz egindako txapelketekin"**

**"Motibatuta noa AEBetara, gauzak ondo egiteko gogotsu nago"**

MALEN RUIZ DE AZUA | ATLETA

### Puntako atletak ibarrean izan dira

Inguruetako pertika jauzilari onenak lehiatu ziren eguaztenean Mojategin, eta norgehiagoka interesgarria izan zen. Jonathan Perezek egin zuen markarik onena (4,96 metro), entrenatzaile lanetan aritu arren. Aurreikuspenak betetz, Naroa Agirre izan zen nesketan onena, 4,41 metroko emaitzarekin. Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua arrasatearrentzat ez zen egun ona izan, ez baitzuten euren marketara gerturatzerik lortu.



Naroa Agirrek 4,41 metroko marka egin zuen. | MAIALEN TORRES

## PILOTA

## Titinek azkeneko jokatu du Debagoiengan, gaur

X.U. | ARRASATE

Gaurko, egubakoitza, Antzuolako jaien barruan pilota jaialdi ederra antolatu dute herrian (22:00). Izan ere, Titinek erretiroa hartuko du bi hilabete barru, eta errioxarrak azkeneko jokatu du Debagoiengan. Ez da Antzuolan jokatu duen lehenengo aldia, afizionatu mailan ere jokatu-takoa delako, Elkororekin.

Hain zuzen, Titinek herriko pilotari bat izango du kontrario, Aitor Mendizabal. Eta gainera, bergarar batekin osatuko du bikotea, Rezustarekin. Zabaleta izango da Mendizabalen bikotea.



Antton Zubia, Oñatiko zaleen babesa jasotzen, orain dela bi urteko proban. | ZURIXATAGOSUA.BLOGSPOT.COM

## TXIRRINDULARITZA

## Piñoi finkodun bizikletak, herrigune barruan eta gauez: badator Kantoikrit

Zapatuan egingo dute fixed bizikleten lasterketa Oñatin, hirugarren aldiz

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Badator bailara honetan gauez egiten den kirol hitzordu ikusgarriaren bat, Eskoriatzako Gabez Takarraran probaren baimenaz. Izan ere, bihar, 22:00etan, 30 txirrindularitik gora abiatuko dira ziztu bizian Oñatiko kaleetan

zehir egindako zirkuituan –gehinez 50 lagunendako toki gorde dute, eta eguaztenean 33 lagunek emana zuten izena–. Ziklistek, gainera, fixed bizikletak erabiltzeko dituzte, piñoi finkoak eta galga barik: "Halako bizikletak erabiltzeko gurean geroago eta zale-

tasun handiagoa dago", dio Antton Zubiak, antolatzailer taldeko kide denak.

Orain arte fixed lasterketa surf festa barruan egon da; oraingo asteburuan, berriz, erabateko protagonismoa hartuko du: "Oso pozik antolatu dugu proba hori

## ESANAK

### "Herrikoiez gain, kanpotik ere jende asko dator aurten"

ANTTON ZUBIA | ANTOLATZAILERA

surf festaren barruan, baina zein harrera ona izan duen ikusita eta bizikletaren inguruan zerbait gehiago egiteko asmoarekin, atara egin dugu lasterketa hori surf festatik, eta Kantoikrit izena jarri diogu.

## Kanpoko jende asko dator

Aurreratu moduan aste barruan 36 lagunek emana zuten izena, eta horietako hamabost ziren oñatiarrak: "Euskal Herrikoiez batera, Kataluniatik, Madrilatik, Asturiastik, Burgostik... etorriko da jendea, baina ziklista frantziarrak eta alemaniarrek ere badatoz". Kantoikrit hazten dabilen seinale, horrenbestez.

Hala, bihar 22:00etan hasiko duten lasterketa Oñatiko herrigunean egingo dute osorik. Kilometro eta erdi du zirkuituak, eta hamahiru itzuli egingo dituzte ia 20 kilometroko lasterketa egite-raino. Proba azkarra izango da, 22:45ean sari banaketa egingo dute-eta; ondoren, kontzertuak izango dira gaua girotzeko, Bitz eta Gora Gora Kids taldeekin.

## ESKUBALOIA

## Alaitz Lazkanoiturburu Finlandian izango da selekzioarekin

Uztailaren 25etik 27ra bitartean hainbat lagunarteko jokatu dituzte Helsinkin, eta Sorian Espainiako selekzioarekin hainbat entrenamendu egin ostean, Aloña Mendiko 14 urteko jokalaria Finlandian egoteko aukeratu dute. Oñatikoak denboraldia borobilduko du horrela.

## MAALAKO ERRABALEKO JAIK 2014

### ARRASATE



**ARREGI ARTE**  
Maalako Errebala, 8  
Tel.: 943 79 56 44  
arregi.arte@gmail.com  
markoak margolanak  
ispiluak obra grafikoa  
erakusketak

**Plus Ultra**  
TABERNA  
Tel.: 943 79 20 57

**ONDO PASAU!**  
**UZTAILAK 20, DOMEKA**  
12:30ean meza parrokiari.  
**UZTAILAK 22, ASTEARTEA**  
08:00etan: Etxaflero jaurtiketa.  
17:00etan: Ume jolasak eta txokolatada.  
19:00etatik aurrera: Poteoa Arrasateko txistulariekin.  
19:30ean: MERY MAY-ren kontzertua, Monte Taberna kanpoan.  
21:00etan: Afari goxo goxoa.  
22:00etan: Kafea, postrea eta DANTZA.  
23:00etan: Su artifizialak.

**KIMETZ**  
Taberna  
Plater konbinatuak  
Ogitarteko hotz eta beroak  
Hanburgesak  
Pintxoak  
Razioak  
943 79 60 49  
Maalako Errebala 15. Arrasate.

**NATUR HOUSE**  
Ondo pasau jaixetan!  
Maala 6  
Tel.: 943 79 04 34 / 670 96 02 43

**BC** GAZTE...  
Jai zoriontsuak izan!  
Tel.: 943 79 70 67

**MONTE TABERNA**  
edari, jana eta kirola  
Ondo pasau jaixak!  
Tel.: 943 77 04 85

**EXPRES KAFETEGIA**  
BOKATAK TERRAZA  
ondo pasau jaixetan!

**ELKORO**  
ELEKTRIZITATEA ORO AR  
ATEZAIN ELEKTRONIKO  
TB SATELITE / DIGITALA  
TELEZABALKUNTZA  
MANTENU ZERBITZUA  
Tel.: 943 79 45 99

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

# UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA

## Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: [blogak.goiena.eus/argazkiak](http://blogak.goiena.eus/argazkiak)

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



XABIER ATXA ZUGASTI. 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASKURAIN. 2013ko bigarren sariaren irabazlea.



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!

### Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
  - Egilearen izen-abizenak eta herria.
  - Harremanetarako telefonoa.
  - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
  - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era arte (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 13an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.eus-en sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en ([www.facebook.com/udakoargazkiak](http://www.facebook.com/udakoargazkiak)) eta Twitter-en ([www.twitter.com/udakoargazkiak](http://www.twitter.com/udakoargazkiak)) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilaria profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

#### HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daitezke lehiaketan, honela:
  - **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidaltuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
  - **Facebook bidez**, [facebook.com/UdakoArgazkiak](https://facebook.com/UdakoArgazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookeez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatearik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

### Sariak

#### 1. saria

**Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.**

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



**2. saria:** Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria. Arrasate Bidaia-en eskutik.



**3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



**Herritarren saria:** SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



**Boto emaleentzat saria:** Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

**KB**  
photoestudio  
[www.kbphotoestudio.com](http://www.kbphotoestudio.com)

ARRASATE BIDAIAK

**GURE AMETSA**  
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua  
**EROSKI**  
zurekin  
**karibu**  
munduko zaporeak  
[karibumundukosaporeak.com](http://karibumundukosaporeak.com)

## KULTURA

# Rafael Lechowski: jazzarekin jantzitako kaleko poeta

- ▶ Udazabal egitarauaren barruan, bi ekitaldi asteburuan: kontzertua bihar eta zirku-antzerkia domekan
- ▶ Arrasateko Udalaren uztailleko kultura egitaraua borobiltzeko, datorren astean bi dantza emanaldi

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Hego Amerikan bira bukatuta eta Katalunian hainbat kontzertu eginda dator Rafael Lechowski raperoa bihar, zapatua, Arrasatera. Monterron parkean izango da, 22:30ean, doan (eguraldi txarra bada, Amaia antzokian).

Jazza kontzeptu poetikoaz nahastutako kontzertu bariatua egitera dator eta espazio zabal baten izatea interesgarria iruditzen zaiola dio, aurrez bere musika ezagutzen ez duten zaleak bereganatzeko baliagarriak dira-eta. Sarritan jo izan du Euskal Herrian eta gustuko du bertako publikoa: "Itxura baten, publiko hotza, bihotzgabea dela dirudien arren, ikusten edo entzuten duzue-na modu barnerakoiagoan bizitzen duzue. Anekdotak bitxiak bertakoak ditut; gogoan dut kontzertuaren erdia dagoeneko eginda nuen batean, publiko horren geldo zegoela-eta, behetik ondo entzuten ez zela uste nuela. Baina ez zen horrela izan, antza, zeren kontzertua bukatu orduko zale mordo bat etorri zitzaizkidan emanaldiagatik zoriontzera, euren bizitzako kontzertutik onena izan zen itxura emanaz. Txoke handia da, baina ohituta nago, urte askoan bizitoki izan dudana Aragoiko zaleen antz handia duzue. Publiko behatzailea eta lasaia bai, baina inondik inora ere sentimendurik gabekoa", kontatu du Rafael Lechowskik.

## Jazz laukotearekin, raperoa

Jazz doinuak erritmo hiritarrekin edo urbanoekin fusionatzen dituen musika da Arrasateko Udalak Foru Aldundiaren Gaztemaniak programarekin bat eginda Monterronera ekarriko duena. Tokian tokiko musikariekin egiten du lan; Monterrogo taularen gainean



Rafael Lechowski, Monterronen egingo duen moduko zuzeneko emanaldi baten. | R.L.

## Polonian jaioa, Espainian hazia

Poloniarra da izatez, 4 urte zituenetik atzerrian bizibada ere. Gurasoekin Alemaniara erbesteratzen lehenengo eta Zaragozara joan ziren gero. Handik gutxira hil zitzaion aita, eta harrezkero, mikrofonoa eta idazluma izan ditu minen sendagarri.

Etxe-aldaketa ugari bizitza gogorra izan du Lechowskik; hala ere, aitortzen du abertzaletasun sentimendurik ez izateak munduko hiritar izateko aukera eman diola.



Rafael Lechowski. | R.L.

honako musikari hauek izango ditu lagun: jazz alorrean eskarmentua duten musikariek osatutako laukotea (Marco Mezquida, pianoan; Miguel Serna, kontrabaxuan; Gabriel Amargant, saxoan; eta Gonzalo del Val, baterian) eta, horiez gainera, DJ bat. "Jazz uneak daude, musikaz lagunduta rapeatutako uneak ere bai, eta baita errezitatutako poesia uneak ere", dio abeslariak.

Ordubate eta erdi inguruko kantu zerrendak *Donde duele*, *inspira* diskoa eta *Larga Brevedad* liburua ditu oinarri. "Kantuen artean, martxoan argitaratutako liburuaren hainbat pasarteren moldaketak egiten ditut. Zuzeneko musikala besteko literarioa da, beraz. *Show* intimista, sentikorra da; oraingoan ez dut publikoaren interakzioa bilatzen, haren hausnarketa baizik", esan du.

Musikariez eta haien tresnez gainera, ez dute beste osagairik erabiltzen; argiek ere ez dute berezitasunik, entzuleek soinua besarkatzea dute-eta helburu.

## Bat-batekoan jaun eta jabe

Munduko askotariko herrialdeak izan ditu bizitoki, baina Zaragozan egin ditu urterik gehienak; han eman zituen, musikalki, lehenengo pausoak. "Hip-hoparen etxea da Zaragoza, eta horrela hasi nintzen ni ere, 13 urte besterik ez nuela igo nintzen lehenekoz agertokira. Geroago murgildu nintzen poesian eta beste alor batzuetan. Agertokian lotsagabea izan naiz beti, konplexurik gabekoa, eta inprobisazio oso garrantzitsua izan da nire ibilbidean. Momentuan sentitzen dudana esaten eta idazten dut beti. Asko zor diot bat-batekoari, asko ikasi dut-eta bertatik. Espektakuluetan beti izan ditut inprobisatzeko uneak, iraupen zehatzik gabekoak, minutu batekoak batzuetan, ordu laurdenekoak beste hainbatetan", kontatu du.

## Etengabe idazten duen poeta

Nerabea zela hasi zen idazten; aita hil zenean, egunkari baten jasotzen zituen orduko bizipen eta sentimenduak. Oinarrian, garai hartako idatzien antza dute azkenaldian idazten dituenak; kutsu poetikoa duten idatzi pentsakorrak. Martxoan argitaratu zuen *Larga brevedad* liburua da horren erakusle. Sekulako harre-za izan zuen liburuak, hamazortzi astean Espainiako bost liburu salduenen artean izan da.

Datozen hilabeteetan, duela sei urte hasi zuen *Quarcissus* proiektua ateratzeko asmoa duela aurreratu du: "Literatura eta musika batzen ditu. Lan oso arraroa da, kontzeptu berri bat da; finean disko bat den arren, musikaz lagundutako narrazio luzeak dira. Kapituluaren argitaratzeko asmoa dut, proiektua guztiz amaitu gabe dudana arren".

## Zirku-antzerkia domekan

Kale-antzerkia eta zirkua uztartzen ditu Bilboko Malas Compañías taldeak. Maiatzean estreinatu zuten *Txatarra* ikuskizuna ekarriko dute Arrasatera. Objektuen manipulazioa, antzerkia, umorea eta akrobazia batzen dituen lan dibertigarria eta hunkigarria da; guztientzako aproposa, bada.

Udazabal egitarauaren barruan, domekan, Seber Altube plazan erakutsiko dute, 20:00etan (eguraldi txarra bada, Biteri plazan).



Malas Compañías hirukotea, Txatarra ikuskizunean. | MALAS COMPAÑÍAS

## ESANAK

"Musikala besteko literarioa da nire zuzeneko"

RAFAEL LECHOWSKI | MUSIKARIA

Anje Duhalde | Musikaria

# "Etxean egiten dudana eskainiko dut Eskoriatzan"

Errekan Gora jaialdiaren barruan kontzertu akustikoa emango du musikariak Eskoriatzako Azkoaga Enea hotolean gaur, egubakoitza

GARAZI AIESTA | ARRASATE

Anje Duhaldek urteak daramatza oholtzatik oholtzara. Eskoriatzako kontzertu akustikoa izango da, lehengo eta oraingo kantuak gogora ekarriko dituena.

**Zer topatuko du publikoak gaurko emanaldian?**

Anje Duhalde eta gitarra bat. Puntu. Funtsean, etxean egiten dudana eskainiko dut. Neu izango naiz, erdaraz esaten den moduan, *a pelo*. Antolatzaileek esan zidaten akustikorako toki berezia zela; beraz, aurrera.

**Baina makina bat aldiz taldearekin jotakoa zara. Nola sentitzen zara erosoan?**

Bietan, ezingo nuke aukeratu. Taldean jotzea ezberdina da, agertokia handiagoa da... Akustikoe-tan, baina, publikoarekiko daukazu gertutasunak oso gauza bereziak, intimoak, sortzen ditu.

**Zure publikoa heterogeneoa bada, behintzat. Belaunaldien artean**

**zubi-lana egitea aitortzen dizute askok...**

Hori ohore handia da niretzat, askotan neurtu ezin dudana ohorea. Behin, neskato batek autografo bat eskatu zidan, eta izena galdetu nionean, amarentzat zela esan zidan. Eta orduan pentsatu nuen: "Amonarentzat eskatzen didaten egunean, nireak egin du". Ez, oso gauza polita da.

**Hamaika zuzeneko eman dituzu. Zer dira zuzenekoak zuretzat?**

Niretzat zuzenekoak ematea kantari baten eginbeharra da. Publiko baten aurrean kantatzen ez duen kantaria esango didazu zer kantari mota den. Ingeniari bat edo laborategiko langile bat, agian, baina ez kantari bat.

**Beraz, zu ez zara playbackaren aldekoa izango.**

Ez gero! Tokatu zait telebistarako egin beharra, eta guztiz gorroto dut. Oso txarra naiz, asko nabaritzen zait. Badaude ondo egiten duten batzuk, eta

bejondeiela. Nik ez dut gustuko, ez dut horretarako balio.

**Zuzenekoekin murgilduta zaudenean ere, konposatzen jarraitzen duzu?**

Noski, kantuak asmatzea eguneroko kezka bat da. Sortzen hasi naizen azken kanta amaitu gabe daukat oraindik, pentsa. Kontzertuak ematen egon edo ez, sorkuntza beti dago hor.

**Eta publikorik ez dagoenean ere kantatzen duen horietakoa zara?**

Ohituta zaudenean horrela ibiltzera ezin duzu edozein astakeria egin. Badakizu, fisikoki ahots kordek ez dizute barkatzen. Baina tira, egin izan ditut astakeriak

**"Zein kantari mota da publiko aurrean kantatzen ez duen hura?"**



Anje Duhalde, Arrangoitzeko kantari ezaguna. | ANJE DUHALDE

ere: kontzertu ostean goizeko zapiak arte kantuan egotea, edo bazkalostean bi orduz... Hori bai, ezetz esaten badut, lagunartean errieta dezente jasotakoa ere banaiz. Nire inguruan kantuan dakien jende ugari dago, eta, beraz, dena amaitzen da kantuz. Baina bai, neurtuta daukadan zerbait da.

**Beraz, etorkizunari begira, kantu berriekin osatutako beste bilduma bat daukazu buruan?**

Nork daki... agian, hurrengo urtean zerbait berriarekin nator.

Euskarriak ere aldatzen ari dira, eta hori beste kontu bat da, baina badut zerbait berria egiteko gogoia.

**Zeintzuk dira etorkizunari begirako erronkak?**

Hurbilean, uda hau ondo amaitzea. Nahikotxo kontzertu daukat. Irailean Quebecera noa kantatzera, eta gero ikusiko dugu negu parte hori nola joango den. Seguru asko, gauzak prestatzea eta zehaztea izango da, batik bat.

## 'Enjoy English Show' ikuskizunak haurren hilabeteko lana batuko du

ANE ELORDI | OÑATI

Oñatiko Txantxiku ikastolako gazte eta haurrek hilabete osoan egindako lana aurkeztuko dute senideen eta herritarren aurrean: *Enjoy English Show*. Aurkezpena Santa Ana aretoan izango da, gaur. Aisialdian ingelesa ikastea eta ondo pasatzea bateragarriak direla ikusteko, ikastaroak emandako fruituak aurkeztuko dituzte.

Uztailean zehar 75 ikasle izan dira ingelesa lantzen, Irlandatik eta Ingalaterratik etorritako begirale eta hezitzaileekin. Musika emanaldiak eta antzerkiak izango dira nagusi, baina hilabete osan egindako eskula-

nak eta bestelako proiektuak ere ikusgai izango dira Santa Ana aretoko sarreran.

**Taldekako lanak**

Gazteak zazpi taldetan banatu dituzte, eta talde txikietan ingelesezko kanta bat oinarri hartuta emanaldi eta ikuskizun bat sortu dute, gaur herritarren eta senideen aurrean aurkezteko. Besteak beste, *Hey Brother*, *I like* eta *Magic* abestien inguruan egingo dituzte emanaldiak. Horren ostean, bertaratutakoek otamena izango dute ikastolako jolaslekuan. Martitzenean bukatuko da Enjoy English egitasmoaren aurtengo edizioa.



2009ko azaroan erakutsi zuten Arantzazuko kripta berritua. | IKER BARANDIARAN

## Nestor Basterretxearen ondarea Debagoiengan

Harenak dira Arantzazuko kriptako margolanak eta Oñatiko euskal artzainaren eskultura

A. ARANBURUZABALA | OÑATI

Aurreko asteko zapatuan hil zen Nestor Basterretxea artistak badi-tu Debagoiengan ere hainbat lan: Arantzazurako bidean dagoen euskal artzainaren omenezko eskultura eta Arantzazuko Santutegiko kriptako margolanak.

**Kripta berrituak, adiskidetuak**

Jakina da Santutegiko kripta dela eta frantziskotarren eta Basterretxearen arteko harremana arantzatsua izan dela urteetan. "Historia handiko artelanak dira

eta sesio ugari sortu zituztenak; baina, zorionez, konponbidea ematea lortu genuen alde bien artean. Eliza berria egin zenean, Basterretxeak horrelako arrasto batzuk egin zituen lehenengo proiektua burutzeko, eta Santutegiko obretan izan ziren debekuak tarteko, gau baten zuriz margotuta, estalita, agertu ziren margo horiek; modu txarrean, berarekin aurrez berba egin barik. Basterretxea biziki haserretu zen, frantziskotarrei leporatuz margo horien estaltzea", kontatu du

Iñaki Beristain frantziskotarrak, eta zera gaineratu: "1983. urte inguruan, kripta berritu nahi izan genuen guk, oso modu kas-karrean zegoelako. Garaiko gotzainarekin, Setienekin, adostuta erabaki genuen Basterretxeari berriro ere lan hori eskaintzea. 1984. urtean margotu zituen, eta blokeetan ekarrita kriptan jarri genituen. Hala ere, oraindik ere, hasierako margolanak zirela eta jarraitu egin zuen gure kontra gaizki esaka".

Arantza txarrak, baina, 2009. urtean guztiz kendu zituzten: "Margolanen 25. urteurrenean, kripta egokitzea pentsatu genuen. Berarekin hainbat batzar egin genituen eta egia da oso ondo joan zela dena. Adiskidetu egin ginen, hortxe dago dokumentu bat erakusle; eta harrezkero, izan da behin baino gehiagotan gurean", dio frantziskotarrak.

**Kukairen Basterretxea**

Astelehenean egin zioten azken agur ofiziala Basterretxeari, eta, askotariko erakundeetako ordezkari gainera, han ziren Oreretako Kukai dantza taldekoak ere; Nestor Basterretxearen *Akelarre* eskulturaren oinarritutako *Gelajauziak* ikuskizunaren pasarte bat erakutsi zuten omenaldian.

Cesc Gelabert koreografoak sortu eta maiztzean Leioako Umorre Azokan estreinatu zuten lana ikusteko aukera izango da Arrasateko Herriko Plazan uztailearen 27an, 20:00etan.



Enjoy English 2014ko partaideak. | TXANTXIKU IKASTOLA



# Musika elektronikoarekin hitzordu garrantzitsua asteburuan Arrasaten

- ▶ Aurten ere Electrogaia jaialdia musika elektroniko euskaldunetz josita dator
- ▶ Aste bukaera osorako egitaraua prestatu dute antolatzaileek

**GARAZI AIESTA** | ARRASATE

Doinu eta erritmo elektronikoen euskal jaia egubakoitzean hasiko da Arrasateko Santa Marina auzoan, aurreko urteetan bezalaxe. Laugarren edizioa du aurten jaialdi horrek, baina, antolatzaileen esanetan, orain arteko ediziorik "potoloena" izango da.

Antolatzaile lanetan dabilen *Aldapa*-k Goienari adierazi dionez, asteburu elektroniko horren helburuak hainbat dira: batetik, musika elektronikoaren esentzia zabaltzea eta askotariko proposamen artistikoak ezagutzera; eta bestetik, bertako artisten lana ezagutzera ematea.

Udalaren kolaborazioa ere nabarmendu dute antolatzaileek, eta gehitu dute musika emanaldiak batera barra zerbitzua ere egongo dela.

Egitarau luze eta zabala prestatu dute antolatzaileek, eta jaialdiak asteburu osoa hartuko du Arrasaten. Egubakoitzean hasiko da Electrogaia 2014 jaialdia eta domekara arte iraungo du ospakizunak.

## DJ euskaldunak

Jaialdian parte hartuko duten hogeita hamabost DJen artean euskal panorama elektronikoko artista onetsuenak egongo dira, izan bailarakoak edo izan kanpokoak. Besteak beste, Alain, Imatxilaut eta Iñaki Cerqueira Kirrin

entzuteko eta haien erritmoarekin gozatzeko aukera izango dute gerturatzen direnek. Gainera, emanaldi ugari egongo direnez, jorratuko diren estiloak ere askotarikoak izango dira, batzuk klasikoagoak, besteak organikoagoak... Musika

mota horrek bere baitan hartzen dituen azpi-estilo asko entzun ahal izango dituzte musika elektronikoaren zale guztiek.

Edozelan ere, *Aldapa* antolatzaileak Goienari adierazi dionez, ez da lan erraza izan horrelako

kartel handia osatzea. Antolatzaileak mundu horretan lagun asko dituela aitortu du, eta horrela lortu duela gonbidatuak Gas-teiztik, Donostiatik eta Bilbotik etortzea.

## Punkaren presentzia

Hala ere, jai elektronikoa izan arren, festari hasiera emateko arduradunak punk kontzertuak izango dira; bailarako sei talde, hain zuzen ere.

Egubakoitzean 17:00etan hasiko dira kontzertu horiek: Aramaioko El Exterminio De La Raza Del Mono taldea, Aretxabaletako Krisis eta Arrasatetik Kadena Perpetua, Repelencia, Transgression eta WC taldeak.

Denen artean sei bat orduko punk emanaldia egingo dute, gero musika elektronikoari lekukoa pasatzeko.

## Hazten doan musika estiloa

*Aldapa*-ren iritziz, hazten doan musika estiloa da elektronikoa. Tamalez, baina, lehen Euskal Herrian horrelako jaialdi gehiago egiten zirela adierazi du; eta orain, ordea, Londresera, Madrilera edo Bartzelonara joan behar izaten dela halakoak ikustera.

Horrenbestez, musika elektronikoaren zaleak galdu ezin duten hitzordua daukate asteburu honetan Arrasateko Santa Marina auzoan.



Asier Galiano DJ-a izango da Electrogaia 2014ko gonbidatuetakoa bat. | JAGOBA DOMINGO

## '3D mapping'-a, Summum Art-en eskutik

Musikaz gain, eta festa giroa areagotzeko, zapatuan, egun osoan, performance bisuala egongo da instalazioan. Soinuekin eta argiekin jolastuta, 3D mapping deritzon moldaera artistikoak hornituko du DJen instalazioa. Summum Art Elorriko proiektua izango da horren arduraduna, eta haren sortzaile John Frazier-ek esan duenez, "DJen kabina hiperaktibo baten sentsazioa" emango du performanceak.

Elorrietik dator proposamena, eta hamar urte baino gehiago daramatza Frazierrek ekitaldi eta jaiak ikuspegi originalagoa eskaintzen.

## Huelvatik etorritako Swing Mama taldearen eskutik askotariko doinuak bihar Gorlan

**ANE ELORDI** | BERGARA

Huelvatik etorritako Swing Mama taldeak kontzertua eskainiko du Gorlako kantinan bihar, uztailak 19, 19:30ean. Eguraldia lagun izatea espero da, eta askotariko doinuez gozatzeko aukera egongo da.

Nahiz eta Huelvatik etorritako taldea izan, euskal erroak ditu; izan ere, lekeitiar batek eta donostiar batek osatutako taldea da, eta bidelagun dute andaluziar bat. Beraz, kultura

eta askotariko doinuen konbinazioa bermatuta dago. Musikan ibilbide luzea duten hiru kide dira, beste talde batzuetan ibiliak ere badira; abesti propioak zein bertsoak kantatzen dituzte, zenbait hizkuntzatan.

## Euskal Herrian birtxoa

Taldearen izen bera duen disko bat ere kaleratu zuten. Udan, Euskal Herrian zenbait kontzertu eskainiko dituzte; esaterako, Lekeition.

## Bertso musikatuak eguaztenean Antixenan: gitarra doinuz lagunduta arituko dira kantuan bertsolariak

Oñatiko gaztetxeak eguazten iluntzea animatzeko asmoarekin jaialditxo antolatu du. Bertsoaldi musikatu izango da, uztailaren 23an, eguaztena, 20:00etan. Antixenako gaztetxearen kanpoko parkean egingo da bertso emanaldia. Kantuan herriko zenbait bertsolari arituko dira, eta gitarra doinuekin bateratuko dituzte bertsoak.

Saioa debalde izango da, eta, bertsolariak kantuan dabiltzan bitartean, gerturatutakoentzat jana eta edana egongo dira.

## Kepa Errastiren 'Aitona Mantangorria' lana aurkeztuko dute Zaraia aretoan zapatuan

Film laburra egin du, eta zuzendari eta aktore lanak bateratu egin ditu

**ANE ELORDI** | ARETXABALETA

*Aitona Mantangorria* du izena Kepa Errastiren azken lanak. Aretxabaletarrak film labur bat egin du, zuzendari eta aktore lanak egin ditu, eta "lan biak bateratzea zaila izan da". Bihar, uztailak 19, lagun artean aurkeztuko dute lana, Aretxabaletako Zaraia aretoan, 20:30ean. Horren ondoren, gerturatutakoekin solasaldia egongo da.

*Aitona Mantangorria* ordu erdi pasatxoko film laburra da; familia bateko kideen arteko harremanetan oinarrituta dago eta aitaitaren eta neba-arreben gorabeherak dira hizpide. Kepa Errastik zuzendaritza eta aktore lanak bateratzea posible ikusi zuen, eta erronka horri ekin zion. Antzerkiko ideia bat du oinarrian; hain zuzen ere, bakarrizketa bat; hortaz, film laburra moldatzeko, lanketa sakona izan da. Zenbait



Kepa Errasti, film laburraren grabazio lanetan. | AITONA MANTANGORRIA

aktore ezagunek hartu dute parte proiektuan; esaterako, Miren Gaztañagak eta Isidoro Zabalak. "Taldeen sortutako giroa oso ona izan da, grabazio-egun gutxi izan dira, baina oso biziak", adierazi du Errastik.

## Irteera unea

Aurrerantzean lana aurkeztzen jarraitzeko asmoa dute, bertako zein nazioarteko jaialdietan. Teknikoki, Errastik orain arte ekoiztutako film labur osatuena dela esan daiteke.

## Aitor Garitano | 'Peter Pan' musikaleko protagonista

"Lasai igotzen naiz oholtzara, ez naiz urduri jartzen, gustura egiten dut Peter Panen papera"

Aitor Garitano, Bergaran, Peter Pan musikaleko kanten liburuarekin.

ANE ELORDI | BERGARA

Aitor Garitano 14 urteko bergararrak Peter Pan pertsonaia gorpuzten du izen bera duen musikalean. Garitanok musikal bitan hartu du parte, *Peter Pan* eta *Olentzero&Co!* ikuskizunetan. Gazteak adierazi duenez, gero eta gogo handiagoarekin gorpuzten du Peter Pan. Hurrengo saioa urriaren 25ean egingo dute Bilboko Euskalduna jauregian, eta sarrerak salgai daude [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) eta [www.euskalduna.es](http://www.euskalduna.es) webguneetan. Ordurako, gaztea ahotsa lantzen ari da, ahots aldaketak eragindako zailtasunak gainditzen dabil.

**Peter Pan izateko aukeratua izan zinenean, nolakoa izan zen zure erreakzioa?**

Oso berri pozgarria izan zen.  *Casting*-ean jende askok hartu zuen parte; izan ere, *Peter Pan* musikaleko pertsonaia guztiak aukeratzeko zen. Proba bakarria egin behar izan genuen, testu zati bat eman ziguten eta ikasi egin behar genuen. Abesbatza ere probara aurkeztu zen, eta berria entsegu baten eman zidaten. Pozez oihuka hasi nintzen.

**Urte eta erdi daramazu Peter Pan gorpuzten; zelako balorazioa da?**

**Pertsonaiak aldaketarik izan du?** Ikuskizunean parte hartzeko lehen proba 2012. urtearen hasieran egin nuen, eta ordutik gabiltza *Peter Pan* ikuskizunarekin. Oso esperientzia polita da, oso gustura nabil, gero eta gusturako igotzen naiz oholtzara. Nahiz eta bi urte igaro diren, pertsonaiak ez du aldaketarik izan, zuzendari artistikoak esandakoa betetzen dut beti.

**Nolakoa izan da musikalak eta, bereziki, zuk egindako bidea?**

Ba, bidean aldaketak egon dira, bai. Izan ere, hasieran herri mailako ikuskizuna zen, Bergaran aurkeztu genuen, eta ondoren Elgetan. Gehiago zabaltzen hasi ginen, eta hiriburuetara heldu ginen. Orduan, norberak hartzen duen ardura ere handiagoa da, aretoak beteta daudelako. Hala ere, ikuskizuna oso landuta daukagu eta gero eta entsegu gutxiago behar izaten ditugu.

**Aretoak bete egiten ditu musikalak, eta hainbeste jenderen aurrean ze sentazio dituzu?**

Egia da norberaren erantzukizuna handiagoa dela zenbait areotan; adibidez, Kursalean edo Euskaldunan antzezterakoan.

Baina ni lasai igotzen naiz oholtzara. Gustura egiten dut, eta ez naiz urduri jartzen.

**Antzektokira salto egin aurretik prestaketa lan berezirik egiten duzu?**

Nik bakarrik ez, baina taldean egiten ditugu, bai. Batetik, ahotsa berotu eta lantzeko ariketak egiten ditugu; eta, bestetik, gorpuztaren espresioa lantzeko ariketak ere bai. Baina nik ez dut erritual berezirik jarraitzen.

**Peter Panek eta Aitor Garitanok badute antzik?**

Ez, batere ez. Musikalean pertsonaia antzektu egiten dut, zuzendariak esandakoaren arabera, beti haren esana betetzen dut. **Nabaritu duzu orain herrian jendeak ezagutzen zaituela?**

Bai, nabaritu dut herrian jendea begira geratzen dela. Bergarako eta Elgetako aurkezpenen osteko bi egunetan igarri nuen hori, eta egindako lanaren inguruko iruzkinak egiten dizkizu jendeak.

**Musikalean aritzeak musikan ere bideak zabaldu dizkizu, ezta?**

Horri esker, Donostiako eta Zumarragako txistulari kontzertuetan hartu dut parte, iaz. Horieta ez naiz Peter Pan bezala aurkeztu, Aitor Garitano bezala baizik. Zenbait bertso eta sehaska kanta bat abestu nituen, eta oso gustura aritu nintzen.

**Antzerkia, aldiz, ezezagunagoa zen zuretako, ezta?**

Bai, baina gustura antzektu dut, ez da zaila izan musika eta antzerkia bateratzea. Gainera, txikiagoa nintzenean, *Olentzero&Co!* musikalean ere hartu nuen parte.

**Datozen urteetan musikan eta antzerkian jarraitzea gustatuko litzazuke?**

Bai, asko gustatuko litzaidake arlo horretan jarraitzea. Orain, piano eta kantu ikasketak egiten ari naiz Bergarako Musika Eskolan, eta urte batzuk barru gustatuko litzaidake kontserbatorioan hastea eta musika ikastea.

## MARRA AZKARREZ

**Zure herriko txoko maiteena:** Bergarako ikastolako jolastokia.


**Kantu gustukoena:** *O mio babbino caro* abestia, Giacomo Puccinirena.

**Abeslari gustukoena:** Eñaut Elorrieta asko gustatzen zait; beste batzuk ere bai.

**Aktore gustukoena:** Ez daukat aktore faborikorik, ez dut eredurik jarraitzen.

**Pelikula gustukoena:** *Ocho apellidos vascos*.

**Animazioko pertsonaia gustukoena:** Doraemon ikusten nuen, gehien, txikit.





ASTEAGOIENAN



Antzuolako jaiak ikusgai telebistan

Atzo, eguena, hasi zituzten jaiak Antzuolan, eta domekara bitartean jarraituko du festak herrian...



Oporrak, elkartasun proiektuetan

Eguazteneko Tertulia saioan, oporrak elkartasun proiektuetan igarotzen dituzten herritarren esperientzia ezagutzeko aukera izango da...

GOIENA TELEBISTA

Table with 7 columns representing days of the week (EGUBAKOITZA, ZAPATUA, DOMEKA, ASTELEHENA, MARTITZENA, EGUAZTENA, EGUENA) and rows listing TV programs and their start times.

ARRASATE IRRATIA

Datorren astean, oporren aurreko azken zuzenekoak

Uda giroan irratsaioak udako oporrak hartuko ditu. Eta, beraz, datorren astean egingo diren saioak uda aurreko azken zuzenekoak izango dira Arrasate Irratian...

'Nasreddin' liburua zozketatuko dute Arrasate Irratian


Pablo Sastre idazlearen Nasreddin liburua zozketatuko dute datorren aste-ko Uda giroan irratsaioan. Parte hartzeko bi bide daude: deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira...

GUARDIAKO FARMAZIAK

Table listing pharmacy names and addresses for various towns including Arrasate, Bergara, and Oñati.

EGURALDIA ASTEBURUAN


DEBAGOIENA



ZAPATUA, 19 Ekaitzerako joera eta giro freskoagoa izango da zapatuan. Zaparrada trumoiatsuak bota ditzake egun osoan.

DOMEKA, 20 Zaparrada trumoiatsuak ez da izango, baina euria egingo du eta tenperatura freskoagoa izango da domekan.

EUSKAL HERRIA



Asteburu ezegonkorra izango da, orokorrean. Domekan eguraldiak okerrera egingo du.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

Hamabi lanpostu langabeentzat. Arrasateko Udala. Bete gura diren lanpostuak: Kudeatzailea (azoka), Leialtze-arduraduna (AUKEA), Digitalizazio teknikaria (liburutegia), Informatika laguntzailea (Kulturarte), Hezitzailea (neguko aterpea), Administratzailea (gizarte zerbitzuak), Administratzailea (personal erregistroa), Administratzailea (5-S metodologia), Teknikaria (herriaren deskribapena), Argazkien katalogatzailea, Informatzailea (hondakinak), Teknikaria (bide publikoaren inbentarioa), Baldintzak: Arrasaten erroldaturik egotea deialdia egin eta sei hilabete lehenagoz, langabea izan eta Lanbiden izena emanda egotea, lanpostu bakoitzari dagozkion baldintzak. Azken eguna: uztailak 23 (Lanbiden eman behar da izena).

Zazpi irakasle Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalea. Tasa: 28,45 €. Jakintza arloak: didaktika eta eskola organizazioa, ekonomia aplikatua, merkataritzako zuzenbidea, kimika ingeniartza, lan eta gizarte segurantzako zuzenbidea, zigor zuzenbidea, artearen Historia. Azken eguna: abuztuak 3.

BEKAK

Lankidetzak 2014-2015. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Bekaren zenbatekoa: 2.000 euro. Baldintzak: Bigarren ziklo edo gradu-ko ikasketak edo unibertsitateko master ofizial baten lehen maila ikasten ari diren unibertsitate ikasleei zuzendua. Aurkezteko azken eguna izango da: irailak 15.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte Bulegoa: Bitleri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net Oñatiako Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altria.es).

## ESKER ONA

**Urbano Bengoa Arkauz**

Leintz Gatzagan hil zen 2014ko uztailaren 10ean, 99 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Leintz Gatzagan, 2014ko uztailaren 18an.

## ESKER ONA

**Isidro Uriarte Biguri**

Oñatin hil zen 2014ko uztailaren 11n, 84 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, uztailaren 19an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin (Araotz), 2014ko uztailaren 18an.

## ESKER ONA

**Jabier Umerz Urrutia**

Oñatin hil zen 2014ko uztailaren 4an, 79 urte zituela.

Guretzat izan zara aittaita paregabea izugarria inork bete ezin duen hutsunea zaindu gaitzazu, aittaita maitea.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Zapatuan, hilak 19, Oñatiko agustindarren elizan, 19:30ean, bere izenean meza izango da.

Oñatin, 2014ko uztailaren 18an.

## URTEURRENA

**Jose Mari Larrañaga Alberdi**

'Zorrozarritxa'



Antzuolan hil zen 2013ko uztailaren 21ean, 72 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza uztailaren 25ean izango da, egubakoitza, 11:00etan, Antzuolako parrokian.

Beti egongo zara gure bihotzetan.

Zure familia.  
Antzuolan, 2014ko uztailaren 18an.

## URTEURRENA

**Kaiet Vicente Raso**

2013ko uztailaren 18an hil zen.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 20an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

Gurekin denbora laburra egin zenuen arren, ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Gurasoak eta anaia.  
Eskoriatzan, 2014ko uztailaren 18an.

## URTEURRENA

**Jose Antonio Ceciaga Arietaleanizbeaskoa**

'Oxina'



Bergaran hil zen 2013ko uztailaren 30ean.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 20an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Bergaran, 2014ko uztailaren 18an.

## OROIGARRIA

**Igor Lete Aranburu**

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

Zu bezalako izarrak ez dira inoiz itzaltzen.

Maite zaitugu.

Zure familia.  
Bergaran, 2014ko uztailaren 18an.

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55  
BERGARA

**Edurne eta Iker**

Edurne Elkoro eta Iker Lopez zapatuan, uztailaren 19an, ezkonduko dira Bergarako Lasa jate-txean. "Zorionak, kuadrillako eta lagun partetik!"

**Txema eta Oihane**

Txema Gomez eta Oihane Zeziaga zapatuan, uztailaren 19an, ezkonduko dira Arrasaten. Etxeberrin bazkaria eginda ospatuko dute familiakoekin eta lagunekin batera. Besarkada eta musu potolo asko familiaren partetik eta, bereziki, Danelen partetik, zorionak, osaba eta izeba!". Velasco taldearen partetik, "zorionak eta izan zorionsu, bikote!"

**Aitor eta Esmeralda**

"Uztailaren 19an zuen ezkontzako bazkaria Oñatiko Zumeltzegi dorrean ospatuko dugu. Zorionsu izatea opa dizuegu etxeko eta, bereziki, Martinen, Ederren, Aneren eta Oierren partetik. Patxo erraldoi bana".

**Juan eta Irene**

Juan Sanchez eta Irene Gonzalez bihar ezkonduko dira. Larrabetzuko Azurmendin ospatuko dute. "Zorionak eta musu handia familiaren eta, bereziki, Anderren eta Laidaren partetik. Maite zaituztegu".

**Aritz eta Belen**

Aritz Gordo eta Belen Dominguez bihar, zapatua, ezkonduko dira. Egun zoragarria igaro dezazuela eta ondo pasatu bidaian. Zorionak eta besarkada handi bat. Familiaren partetik.

**Jesusa eta Jazinto**

Oñatiko Jesusa Maiztegik eta Jazinto Lizarralde ezkontza-urteurrena ospatuko dute uztailaren 19an. "Zorionak zuen 55 urteurrenean. Ondo pasatu eguna, musu handi bat eta horrela jarraitu".

**Mireia eta Hodei**

Mireia Garcia eta Hodei Beitia zapatuan ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ondoren, Etxe-Aundin ospatuko dute. "Osasuna, maitasuna eta rock-and-rola, familiaren eta lagun partetik!"





GOIENA



SARA SANTOS



IMANOL SORIANO

**ESKORIATZA** Anje Duhalderen emanaldi akustikoa

"Ni bakarrik, gitarra soil batekin". Halaxe agertuko da Anje Duhalde Errekan Gora egitarauan egingo duen kontzertuan. Akustikoa izango da Duhalderen emanaldia. Bere kantu esanguratsuenak joko ditu entzuleen gozamenerako. Gaur, egubakoitza, Azkoaga Enea hotelean, 22:30etan.



CONCURSOBC.BLOGSPOT.COM

**BERGARA** Berumuga: Travelling Brothers

Talde familiarra da Travelling Brothers. Musika alorrean eskarmentu handiko taldea. Swing eta blues doinuak lantzen dituena. 2014ko otsailean kaleratutako *Magnolia Route* diskoa aurkeztuko dute. Doako emanaldia. Gaur, egubakoitza, Espoioian, 20:00etan.

**OÑATI** Santxolopeztegiko jaiak

Madalena jaiak ospatuko dituzte Santxolopeztegin, gaurtik. Umeendako ekintzak, dantzaldia, herri kirol erakustaldia, mus txapelketa eta auzoko hildakoen aldeko meza izango dituzte.

Gaurtik domekara arte, Santxolopeztegi auzoan.

**ARETXABALETA** Portasolgo jaiak

Domekara arte askotariko ekintzak egingo dituzte Portasol auzoan; besteak beste, umeendako ekintzak, mus eta xake txapelketak, rock kontzertua, paella lehiaketa eta Gorritiren animalien erakustaldia.

Gaurtik domekara arte, Portasol auzoan.

**ARRASATE** Maala kaleko jaiak

Hilaren 22an, Madalena egunez, ospatuko dituzte jaiak Maala kalean. Umeendako jolasak eta txokolate-jana, poteoa eta auzo-afaria egingo dituzte. Kalea giro-tzearena Mery Mayren ardura izango da. Bakarlari arrasatearrak kontzertua egingo du Monte tabernaren kanpoaldean.

Uztailaren 22an, Maala kalean, egun osoan.

**BERTSOLARITZA****OÑATI** Bertso musikatuak

Herriko bertsolarien eta musikarien arteko elkarlanarekin, bertso musikatuak egingo dira gaztetxe aurreko parkean. Jatekoa eta edatekoa egongo da.

Uztailaren 23an, Antixenan, 19:00etan.

**ERAKUSKETAK****ARETXABALETA** Margo ikastaroko ikasleen lanak

Ainhoa Cabero irakaslearekin margo ikastaroa egin duten ikasleek euren lanak ikusgai ipini dituzte. Urtean zehar landutakoa erakusteko aukera dute uztail osoan.

Uztailaren 30era arte, Arkupen.

**BERGARA** Juan Antonio Palaciosen lanak

Juan Antonio Palaciosen margo-lanak ikusgai ipini dituzte. Euskal txokoetako koloredun argazkiak eta zuri-beltzean egindako erretratuak bateratzen dira Aroztegi erakusketan.

Uztailaren 20ra arte, Aroztegi aretoan.

**IKUS-ENTZUNEZKOA****ARETXABALETA** 'Aitona mantangorria' film laburra

Kepa Errasti zuzendari aretxabaletarren film laburra emango dute: Josu etxera itzuliko da Gabonetan, arrebaren etxera. Baina aitonaren iraganeko sekretu batek hankaz gora ipiniko du hiruren arteko hartu-eman. Kepa Errastirekin batera, Miren Gaztañaga, Isidoro Zabala eta Unax Santxez aktoreak izango dira. Musika Pascal Gaignerena da.

Bihar, zapatua, Arkupen, 20:30etan.

**KIROLA****OÑATI** Kantoikrit kriteriuma

Pinoi finkodun bizikleten kriteriuma egingo dute herriguneko kaleetan. Txirrindulariek hamahiru bira emango behar dizekio kilometro eta erdiko zirkuituari. Irteera eta helmuga Foruen plazan egongo da.

Bihar, zapatua, Foruen plazan, 22:00etan.

**DEIA****OÑATI** Etorkinekin afari-tertuia

Herrian bizi diren jatorri askotariko etorkinen bizipenak eza-gutzeko aukera egongo da. Era berean, euren egungo egoeraz egingo dute berba. Izena alde aurretik eman behar da gaztetxean.

Etzi, domeka, Antixenan, 20:30etan.

**OÑATI** Auzoetako plastiko bilketa

Ohiko puntuetan batuko dute berotegietako plastiko beltza eta zuria: Zañartun (Zuazola inguruan), Murgian (Asentzio ermitan), Olabarrietan (autobus geltokian) eta Eteo atzealdean.

Uztailaren 22an, aipatutako lekuetan, 17:00etan.

**ANTZERKIA****OÑATI** 'Funes Van' ikuskizuna

Kale antzerkia egingo du The Funes Troup taldeak. Hiru pertsona karabana baten bizi dira. Euren kezka eta nahiak partekatzen dituzte ikus-entzuleekin,

helburu bakar batekin: onartuak izatea eta arrakasta lortzea. Uztailaren 23an, Foruen plazan, 19:00etan.

**IRTEERA****ESKORIATZA** Donostiako su artifizialak ikusteko irteera

Eskoriatzako Olazar erretiratu elkarteak irteera antolatu dute abuztuaren 13rako, Donostiako su artifizialak ikusteko. Interesatu elkartearen bulegoan eman behar dute izena, martitzenetan eta eguenetan, 11:00etatik 12:30era. 15 euro ordaindu behar da izena ematerakoan.

Uztail bukaera arte, Olazarren.

**ESKORIATZA** Asturiasera bidaia

Eskoriatzako Olazar elkarteak irteera egingo du Asturiasera, urriaren 1etik 7ra. Interesatu elkartearen bulegoan.

Uztail bukaera arte, Olazarren.

**BESTELAKOAK****ESKORIATZA** Garapen Jasangarria eta Gizarte Garapena sustatzeko dirulaguntzen bigarren deialdia

Interesatu elkartearen 30era arte aurkez ditzakete eskaerak udal erregistroan. Laguntzak axtrokitan ordainduko dira.

Uztail bukaera arte, udal erregistroan.

**ESKORIATZA** Gazte egitasmoetarako laguntzak

Interesatu elkartearen 3a baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaerak udal erregistroan, 09:00etatik 14:30era. Gazteak herri bizitzan parte hartzera bultzatzea dute helburu laguntza horiek. Aurrekontua 600 euro da.

Irailaren 3ra arte, udal erregistroan.

**IKASTAROAK****ELGETA** Dinamizatzailea KZgunean

Dinamizatzaile izateko ikastaroa egingo dute KZgunean. Aurretik ez da izenik eman behar.

Uztailaren 22an, KZgunean, 09:00etan.

# ANTZUOLA JAIETAN

**GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN |**  
**ANTZUOLAKO JAIK 2014**

UZTAILAK 21, 20:00, 21:00 ETA 22:30

**GOIENA TELEBISTA | SAIO BEREZIA |**  
**ANTZUOLAKO JAIK 2014**

UZTAILAK 25, 19:15 ETA 20:00

BABESLEA:





# goiena

2014-07-18

BUKATZEKO

## Mexikotik, kooperatibagintzaz aritzera

- Mexikoko ingeniartzako ikasle onenek hiru aste eman dituzte Mondragon Unibertsitateko Biteri egoitzan
- Herrialdeko hainbat tokitatik etorritako ikasleak dira; kooperatibagintzaren gainean aritu dira

MIREN ARREGI | ARRASATE

Mexikoko ingeniartzako ikasleak dira –emaitza akademiko onenak dituztenak– eta Arrasaten eman dituzte azken hiru asteak. MUK eta Coacalcoko Tesco unibertsitateak duten elkarlanerako hitzarmena da Mexikoko ikasle horiek gurean egin duten egonaldiaren abiapuntua. Ikasleek kooperatibagintzaren gaineko ikastaro bat jaso dute hemen egon diren denboran, eta, nola ez, Euskal Herria ezagutzeko ere aprobetxatu dute.

### Kooperatibagintza lantzen

Kooperatibagintzaren esperientzia konpartitu du Mondragon Unibertsitateak Mexikotik etorri diren ingeniartzako 29 ikasleekin; euren zerbitzu berria ez ezik, interesekoa ere suertatu da. "Zerbitzu entzuna nuen kooperatibagintzaz, baina ez nuen filosofia gisa ezagutzen. Ezta horrela funtzionatzen duen enpresarik ere", dio Vanesa Colin ikasle mexikarrak. Oinarri teorikoak ezagutzeaz gain, Mondragon Taldeko hainbat enpresa ezagutzeko bisitak ere egin dituzte; Alecopen izan ziren lehenengo eta Fagor ere bisitatu dute: "Ikastaroa jaso eta gero, aberasgarriak izan dira enpresetara egin ditugun bisitak. Ikusi



Arrasaten egon diren Mexikoko ikasleak ikasgelan, Jon Sarasuarekin. | VANESA COLIN

dugu emaitzak ematen dituen filosofia bat dela", gaineratu du Jose Antonio Valladares, beste ikasle batek. "Nork daki; beharbada, guk Mexikon ere jar dezakegu martxan kooperatiba bat", gaineratu dute irribarretsu.

### Euskal Herria ezagutzen

Egonaldia bukatzeaz –bihar egingo baitute Mexikora–, penaz dira ikasleak, "primeran" pasatu dute-eta: "Jendeak oso ondo tratatu gaitu eta hau oso ederra da. Paisaia, herriak... Sekulako esperientzia

izan da", dio Vanesa Colinek. "Gu hirira ohituta gaude. Eraikinak eta eraikin gehiago, hori da gure paisaia. Sekulako aldaketa da. Mendian ibili gara, itsasoan bainatu... Ikaragarria da", gaineratu du Jose Antonio Valladares.

### AZKEN BERBA

IDOIA  
ETXEBERRIA



### Oporretako kateak

Uretan nengoen. Igerian. Eta musika entzun nuen. Ikaragarriko bolumenean. Diskoteka estiloko burundara. Txunda-txunda. Itsasontzi handi batetik zetorren. Gazte betako itsasontzia. Dantzan eta oihuka zebiltzan gazteak. Gintonic batekin eskuan, segurueenez. Xanpaina, bestela. Ibizan edo Saloun? Ez, Kontxako badian.

Munduko beste puntara joanda ere gerta daiteke. Iru-dipena izatea dena ezaguna dela. Lehenago ere egon zarela hor. Edo ez dakizula non zauden. Edonon egon zaitezkeela, alegia. Aireportuan hasten da sentipena: marmolezko korridor luzeak; *duty-free*-ko dendak; jatetxe hotz bezain garestiak. Eta hegazkinean jarraitzen du: maniki itxurako azafata-azafatoak; hankendako lekuri ez duten besaulkiak; plastikozko sandwichak. Eta iristen zara oporlekura. Munduko hiriren batera. Eta arropa-denda, jatetxe eta hotel kate berak aurkitzen dituzu. Hanburgesa prefabrikatuak. Pizza, kebab, wok. Eta Coca Cola.

Karibeko ur gardenetan egongo naiz. Igerian. Eta musika entzungo dut. Txunda-txunda. Gazteak itsasontzi batean. Dantzan eta oihuka. Eta Kontxako badiarekin gogoratuko naiz. Ongi etorri opor globalizatuetara!

ENTZUMEN-OSASUN EZIN HOBEAZ GOZATZEA  
USTE DUZUNA BAINO ERRAZAGOA DA.

GAESen ENTZUMENA DOAN  
aztertuko dizugu.

Eta orain, gainera, entzumen laguntzetan  
%20 arteko deskontuarekin



**GAES**  
Entzumen Zentroak

www.gaes.es



\* Kontsulta itzazu zentroan, promozioaren baldintzak

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • ARRASATE | Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • BERGARA